


TOKIKOM

2011ko abendua | 110. zenbakia

aitz! !

txorierriko aldizkaria

Gabon-giroa





TXORIERRIKO MANKOMUNITATEA

**Txorierriko Mankomunitateak
eta Udalek zorionak eta urte
barri on opa deutsueez**



Derio



Lezama



Loiu



Larrabetzu



Sondika



Zamudio
Udala
Zamudio



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzketan, Arrekileri, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Jon Gokouria, Juan Luis Goikoetxea, Pospolin, eta Arizta Nagel

Kolaboratzaileak: Inés Serrano, Imanol Álvarez, Oihana Astobieta, Jose Antonio Lekue, Gaizka Peñafiel, Alain Asenjo, Belen Gana, Sabin Arana, Laura Martinez, Idoia Andres eta Itsasne Zubiri

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zalzo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



diruz lagundutako aldizkaria



12 Kukai dantza taldea



32 Gaizka Peñafiel



36 Lezama Saretzen

-  4 Eritxia
-  6 Laburrak eta albisteak
-  10 Iruditan... Kontuz, haizea!
-  12 Gurean izan da... Kukai dantza taldea
-  14 Gaztea eta... Igor Ramos
-  16 Euskararen Eguna
-  19 Gabonak bor-bor
-  24 Patricia eta Adrianaren baso sorgindua
-  28 Indarkeria prebenituz... Miriam Herbón
-  30 Txorierriarrak munduan... Izaskun Kortazar
-  32 Musika... Gaizka Peñafiel
-  34 Publierreportajea
-  36 Elkarteak/Taldeak... Lezama Saretzen
-  38 Txorierri ezagutu... Jaiak eta zezenketak
-  41 Aikorrizketan... Txarriboda vs. boda txarria
-  42 Sukaldaritza
-  45 Denborapasa

• PAKETERIA ZERBITZUA • BUZONEAKETAK • KARTEL IPINKETAK • MARKETIN ZUZENA • PUBLIZITATE BANAKETA •

TIPS@
ZAMUDION
Torrelarragoiti ind., P-7 B, 1. pab.
Tel.: 944-525 086
Fax.: 944-525 088
sondika@tip-sa.com

bidera banaketa



© 670-93 97 86

banaketa@bidera.eu

DONOSTIA • BILBO • ANDOAIN • IRUN • ZAMUDIO

www.bidera.eu/banaketa

Bada garaia



IMANOL ÁLVAREZ
(Filosofian lizentziatua)

Luzaro hemendik agertu barik. Idazteko gogoa, aldiz, ez dut sekula galdu. Egia esan, ez dut sikiera denbora faltarik izan, ezta ideia faltarik ere. Baizik eta ordenagailu aurrean jartzen nintzen bakoitzean, nolabaiteko ezkortasun/baikortasun baten erdian topatzen nuela neure burua. Milaka artikulua idatz nezakeen, arazoak beste, baina artikulua guztiak artikulua bera ziren, leku berdineraren iristen ziren.

Hezkuntza da helmuga hori, zen eta beti izango da. Bera delako gure esku dagoen eraikuntza masiboko arma nagusia. Mila motibo izan ditzakegu ezkor azaltzeko, baina beti edukiko dugu bat baikorrek izateko.

Hala ere, eskolak eraldaketa behar du. Hamar urteko umea mahaian eseri eta ekosistema batek nola funtzionatzen duen azaltzen diogu. Leihotik begira topatzen badugu, benetako ekosistema dagoen tokira alegia, kontzentrazio-arazoa du; eta geldirik ez badago, hiperaktiboa da. Munduko ezagutza guztiak klik bakar batean ditugun garai honetan, milaka datu buruz ikasten jarraitzen dugu. Baina ekonomiak, legeak eta politikak nola funtzionatzen duten aztertu

gabe bukatzen dugu derrigorrezko hezkuntza.

Aldaketa sakonen garaia da, eta horiek gizarteak berak behar duen paradigma-aldaketekin batera etorri behar dira, behar bada. Alde batetik, bizipen-tan oinarritutako hezkuntza hausnartzailer baten beharra dugu, pentsamendu autonomoa eta kritikoa ahalbidetzen duen hezkuntza-eredua. Ezagutza guztion artean eraikitzen dugula onartzen badugu, hots ikuspegi ofiziala, irakaslearen betebeharra da ikasleen hausnarketa ahalbidetzen duten materialak eta jarduerak prestatzea. Baina ez dugu ikuspegi ofizialean sinesten. Errealitatearen eta ezagutzaren arteko aldeak sortzen du motibazio eza ikasleengan. Ezagutza zati-katua eta itxia da liburuetan; matematikak, natura, literatura..., ordea, bizirik eta elkarri eragiten diotela topatzen ditugu egunerokotasunean. Soilik errealitatearen bizipenak eta honek dakarren hausnarketak buelta diezazkioke esanahia eta zentzua hezkuntzari. Baita motibazioa ikasleei ere.

Bestalde, nor bere buruarekin eta ingurukoekin duen harremana lantzeko garaia da. Izaten eta elkarbizitzen ikastea delako hezkuntzak dituen helburu nagusietariko bat, nahiz eta lehiatzeko eta edukitzeko hezten gaituzten. Erronka honetan ere esperimentazio eta pentsamenduaren bidetik jarraitzea komeni da. Ez dagoelako bizitzen ez duguna barneratzerik.

Trabak eta zailtasunak asko direla badakit. Lehenik eta behin, ordutegiak leku utzi beharko dio pentsamenduari, hura jarraitasunez eta zehaztasunez lantzeko. Baina norabide berri baten beharra aldarrikatu nahiko nuke. Agiri ofizial polit horien teoria geletara eramateko garaia da.

Erralde zabalik



JOSE ANTONIO LEKUE
(Baserritarra)

Dagoeneko denok dakigu Erralde Durangoko hiltegia ixteko agindua heldu dela, osasun baldintzak direla tarteko, nahiz eta hiltegi honek urteetan baldintza guztiak bete izan dituen. Osasun baldintzen eskakizuna aitzakia bat besterik ez da, Bizkaia hiltegi barik uzteko ez dago arrazoirik.

2011n, Erralde hiltegian 10.000 abelburu hilko direla kalkulatu da; 8.000 inguru, Bizkaikoak. EHNE sindikatuak dioen moduan, Erralde hiltegi bat baino zerbait gehiago da. Azken urteotan lan egiteko eredu sozial bat posible dela erakutsi du, eta elikadura burujabetzaren alde lan egiteko ezinbesteko tresna da. Lehen sektoreari, kontsumitzaileei, harakinei eta abarri sekulako kaltea egingo die Berrizko hiltegi berria martxan ipini barik Durangokoa ixteak. Berrizko Erralde hiltegi berriaren proiektua eginda dago gainera, eraikitzeko lurra ere badu eta finantzazioaren % 40a lortuta dauka.

Horrela ba, Durangoko hiltegia Berrizko Erralde berria egin arte ez ixteko eskatu behar dugu, baserritarrok eta gizarte osoak.

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ama
taberna

Leizola plaza, 9 - Leizaola (Zamudio)
94 455 71 67

ESTILISTA
EVA ARDINES


AmAr

Astoria - Oñiz: Getatik-19telera
Larunbata: Getatik-14telera

Urtibe Plaza, 1 - Behe 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 04 19 (Aurreko txanda)

ORAIN SEKULA BAINO GEHIAGO...

ARMA ZAITTEZ



euskara

bai & by

english

**2012an
enpresa bazara,
gure ikastaroak DOAN
atera dakizkizuke
TRIPARTIA
FUNDAZIOAREN
hobarietarako.
Dei iezaguzu
konpromisorik
gabe.**

bai & by

ZAMUDIO: TEKNOLOGI PARKEA 103 - ATIKOA 94 4318047

PDFak sortzeko bertsio berria, euskaraz

Cianoplan Zamudioko inprimategiak bezeroei lana erraztea du helburu, ama hizkuntzan lan egiteko aukera eskainiz eta bulegotik mugitu barik kalitatezko inprimaketak bermatuz. Horregatik, PDF softwarearen bertsio berria garatu du, euskaraz zein gaztelaniaz erabil daitekeena. Bertsioak leku gutxiago behar duten PDFak sortzen ditu, eta bateragarria da kaleratu berri diren Windows 7, Vista eta XP sistema eragileekin. Bertsioa www.cianoplan.es/recursos webgunean eskura daiteke doan.

Kultura-ekimenak, Hori Bai-n

Hori Bai Larrabetzuko gaztetxean dabiltzan lagunek kultura-ekitaldi sorta zabala antolatu dute urtarilerako. Horrela, bada, mendi proiektzioa edukiko dute hilaren 8an, 18:30ean, eta mahai-ingurua egingo da hilaren 12an. Mahai-ingurua 19:00etan hasiko da eta gazteei dagozkien hainbat gai izango dituzte hizpide han. Hurrengo egunean kontzertuak egongo dira gaztetxean. Urtarrilaren 21ean, 16:30etik aurrera, zirko tailerra egingo da eta, horrezaz gainera, Kukutza gaztetxearen inguruko hitzaldia ere antolatu da egun horretarako. Azkenik, hilaren 22an, 19:00etan, *Los años robados* liburua aurkeztuko da.

Kultura-txartelak, SKAn erabiltzeko



Aurreko urteetan bezala, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak kultura-txartela sustatu du Gabonetarako. Txartel bakoitzak 40 euro balio du, baina erosleak 25 euro baino ez du ordaindu behar; gainontzekoa erakundeak ipiniko du. Besteak beste, liburuak, musika edo ikuskizunerako sarrerak eros daitezke txartelarekin. Sondikako Kultur Etxeak bat egin du ekimenarekin. Zortzi sarreratako pack-a eskaintzen du kultura-bono bakoitzaren truke. Sarrerak bost euroko balioa dute, eta Kultur Etxean ematen diren udal ikuskizunetarako erabil daitezke: zinea, an-

tzerkia edo musika. Kultura-txartelak urtarilaren 5era arte eros daitezke BBK-aren kutxazain automatikoetan, eta horiek urtarilaren 20ra arte aldatu ahal dira sarreretako pack-aren truke, liburutegian edo Kultur Etxean bertan.

Sarrerok Kultur Etxeko txarteldegian aldatu ahalko dira ikuskizuna hasi baino ordu bat lehenago. Ikuskizunak bost euro bai-no gutxiago balio badu, ez da dirua itzuliko; eta gehiago balio badu, aldea jarri be-harko da. Sarrerak datorren urteko abenduaren 31ra arte erabili ahalko dira.



**ASADOR
ARAMENDI**

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEK
JAUNARTZEAK**

**Arteaga auzoa, 119
Tlfnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO**



**hotela
jattetxea
aretxarte**

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com



Iñaki **Jabi**
94 455 65 08 94 452 14 31

**Magalarte
Txakolina**

ARETXABALETA ERREDA ETA BOTILARTEA

75 cl.
10,75% vol.

Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen

Lot - 1-05

GELA BAKARREKO, 2 ETA 3 GELATAKO 10 ETXEBIZITZA KOOPERATIBA-ERREGIMENEAN



114.300 eurotik

kudeatzailea  **Biurban**

TEL.: 94 430 32 46 - 646 66 60 78
biurban@biurban.com www.biurban.com

 **Remirez Instalaciones S.L.**

ENPRESA INSTALATZAILEA:
BEROGAILUA, GASA ETA URA

Tel/Fax: 94 455 82 96 / 606 39 33 46
E-mail: reinsta@euskalnet.net

Iturrikoetxe, 3
48195 Larrabetzu (BIZKAIJA)



www.isciutto.com
sciutto@euskalnet.net

USTIAPENA,
SALMENTAK, SAT

MAKINA AUTOMATIKOAK:

KAFEA, LATAK,
SNACK, TABAKOIA

Idorsolo ind., 5. nabea 10. pab. 48160 DERJO

Tel. 94 454 33 34

656 78 66 84 / 85 - Fax: 94 454 29 04

Albaitaritza

HENAR ORTUONDO
ALBAITARIA



DERIO

Mikel Deuna Plaza
Tel.: 94 454 28 21
48160 Derio (Bizkaia)

LARRIALDIAK: 24 ordu
Tel.: 94 480 28 84
abonatuak: 1815



TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragotti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



kinolak

dribbling sport

KIROL EKIPAMENDUAK
FUTBOLA - BASKIBALOA
ATLETISMOA - GIMNASIA
PSIKOMOTRIZITATEA - SAREAK
GARAIKURRAK - DOMINAK
KIROL OROKORRA

AIZKORRI KALEA, 1
TELEFONOA 94 454 10 01
48160 - DERIO (Bizkaia)



LARRABETZU

MUSIKA ESKOLA

Matrikula zabalik
ikastegi homologatua

Errebale, 7 Behekoa

Tlf. 94.455.70.66

48195-LARRABETZU
Derion, Institutoan



ARGAZKI LEHIAKETAREN SARIAK BANATU DITUZTE LEZAMAN.-

Aurten argazki ikastaroa antolatu da lehenengo aldiz Lezaman, eta haren haritik Argazki Lehiaketa ere egin da. Lehiaketan 11 lagunek hartu dute parte, eta, antolatzaileen esanetan, kalitate handiko lanak aurkeztu dira. Argazkiak abenduan egongo dira ikusgai herriko liburutegian. Lehiaketa M^a Angeles Alonsok irabazi du eta sarizat lagun birentzako Spa zirkuitua jaso du. Bigarren Estibaliz Ramos lotu da, eta horri lagun birentzako bazkaria edo afaria eman diote oparizat. Hirugarren postua Ingrid Gómezek eskuratu du eta trivial feminista bat jaso du sari.

Gizon Proben emaitzak

Azaroan Euskal Herriko Gizon Proba Txapelketa egin zen Nabarnizen. Aitor de La Concepción eta Iñigo Aurrekoetxea txorieritarrek lehenengo aldiz hartu zuten parte bertan. Kirolariak azaldu dutenaren arabera, espero zuten baino emaitza hobekak lortu zituzten, "hala ere, oraindik eskasak dira onenen parean ibiltzeko. Pixkanaka-pixkanaka joango gara hobetzen. Ziur gaude datorren urtean

hobeto ibiliko garena eta markarik onei aurre egin ahalko dieguna". Iñigok iltze bat, 3/4 eta 3,70 metroko marka egin zuen, eta seigarren postua eskuratu zuen. Bestetik, Aitorrek iltze bat eta 5,10 metroko marka egin zuen, eta bederatzigarren lotu zen. "Txapelketari esker gauza asko ikasi ditugu eta onenak ikusi ditugu lehian. Haiek hartu beharko ditugu erdutzat".



ANKAPALU
SAGARITZERIA

LARRABETZU
☎ 94455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubietza
Osasun-zentrua & Hortz-estetika
HORTZ-PLANTEAK - ORTODONTZIA ESTETIKOA
HARRAK ZEN BELDURAK

Dr. Arretza kalea, 11 - 1. rat. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 23
Urbe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

z

luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lorja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

Ale-ahaindegia

M^a Antonia Llodio **TXPI**

Txorierriko elorbidua, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Zorionak
eta
urte berri
on!!

Abenduaren 30ean 17:30etan
San Isidro elizaren aurrean hasita
Derioko kaleetan zehar...

LAINOMENDIren
gabonetako
erromeria
ibiltaria



AM

FORMACION Y TRADUCCIONES

- INGELES ESKOLA
- MAILA GUZTIAK
- AZTERKETA OFIZIALAK
- EGITEKO PRESTAKUNTZA
- ONE-TO-ONE ESKOLA
- PRESTAKUNTZA ENPRESETAN
- ESKOLAZ KANPOKO KLASEAK
- ITZULPEN ZERBITZUA

Erremeteri 16
48150 SONDIKA
T: 94 453 64 08

www.am-formacion.com
info@am-formacion.com

Garaioltza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 64 69

makla
arkitekтура

Teknologi Parkeko Elkartegia
Logo bidea 804 Erakina 107 B
48160 Derio Bizkaia
653 016 386 • 620 080 111
estudio@maklaarkitekтура.com
www.maklaarkitekтура.com

ESTANKOA Ana Artiñano Inchausti



Mungialde etorbidea, 12 - 48160 Derio
Tel/Fax: 94 454 15 41
anaarti@euskalnet.net



OPTICA MODERNA

Erdiko kalea, 4
48160 Derio
Tel.: 94 454 37 99



TXIMINTX
DERIHO EUSKARA ALHARTER

Jaietan be EUSKARA AHOAN!
Gozatu jaiak euskaraz!



X Koltza Plaza, 2 - 4.D
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 27 19

Estudios 10 Ikastegia

Pakearen Plaza, 3 - behea
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 50 13



Bazkaria/irteeran izena emateko epea

Aurreko urteetan bezala, Larra-koetxe jai-batzordeak irteera antolatu du sagardotegi batera. Irteera otsailaren 11n izango da, eta izena ematea urtarrilaren 24tik 31ra bitartean egin behar da Zabalotxeko eskola zaharrean, 11:00etatik 13:30era arte. Bazkaria Aburuza Adunako sagardotegian egingo dute. Loiuako enparantzatik 09:00etan aterako dira eta handik Bilbora abiatuko dira lagun gehiago hartuz. Irrintzi Billabonako elkartearen hamaiketako hartuko dute eta 15:00etan bazkaria izango dute sagardotegian. Bazkaldu ostean, trikipoteoa egingo dute Oriotik, eta Loiura 23:00etan itzuliko dira. Irteerak 65 euro balio du laguneko.



Gabon-kanten Festibal Korala

Jendetza handia batzen duen ekimena da Txorierriko Gabon-kanten Festibala, eta gurean klasiko bihurtu da. Ipar-Alde Derioko abesbatzak 26. aldiz antolatu du hura, eta AIKOR! aldizkaria kalean egon orduko kontzertu gehienak emanda badituzte ere, oraindik aukera dugu, tradizio musikaz gozatzear gain bailarako ahots zoragarriak entzuteko. Horrela, abenduaren 29an, iluntzeko 8etan, kontzertua eskainiko da San Isidro elizan. Han abesbatza hauek hartuko dute

parte: "Txuma Olagüe" abesbatza eta Olagüe talde korala (Sondika), Ekidazu abesbatza (Lezama), Gaztelumendi abesbatza (Larrabetzu), Zamudioko Kamara Korala eta Ipar-Alde. Bestetik, Zamudion ere Gabon-kantak egongo dira entzungai abenduaren 23an. Saioa arratsaldeko 7etan izango da San Martin elizan. Zamudioko Kamara Koralarekin batera, San Juan Bautista Leioako abesbatzak eta Deustoarrak abesbatzak abestuko dute bertan.

 **Inmobiliaria
ETORKI**

Mungialde etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Mobiila: 607 32 35 53 48160 DERIO

Nire Autoocasion 

**IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA**



GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobiak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefono-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

harategia - urdaitegia

MIGUEL 

ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA

Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia



BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es



Kontuz, haizea!

Txinatar jatetxe batetik irteteen izaten dugun bezalako zaporea utzi digu abenduak: gazi-gozoa. Hilabetean denetik izan dugu, beroa, hotza, euria, ostarteak... Eguraldiaren semaforoan baditugu argi bi piztuta urteko azken hilabete honetan: laranja, lehenik, eta gorria, ondoren. Azkena haizeteen txanda izan da, eta, besteak beste, garabietatik urrun ibiltzeko gomendioa eman zuen Eusko Jaurlaritzak. Ni argi berdearen zain egongo naiz, baina etxetik hurbil eta garabietatik urrun.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti

GDITOLTZA, 7 B EZKERRA
48196 LEZAMA, BIZKAIA

**EXCAVACIONES
AZURMENDI**

epetargi@excavurmendi.com



MOBILA: 649 102 122
TEL./FAXI: 944 554 158



GARAIOLTZA, S.A.
PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

Etxebizitzak
Merkataritza-lokalak
Garajeak
Lehen mailako eraikuntzak
Lehiate handiak
Ordaintzeko erraztasunak

Tel.: 94 455 50 19

Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)



GAZTELEKU TABERNA
Andra Mari, 6 - Larrabetzu
94 455 88 97



ohiko perrea
egiten doguz

Vértigo
GONZALO PEREZ PASTOR
Zuzendari kudeatzailea

IKUSKIZUNEN ANTOLAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA

Torreanagoiti ind. P 8-B
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
e-mail: gonzalo@vertigo.es
Tel. 94 452 22 58 - Faxa 94 452 22 34

OSKARBI
fotografoak

JOSEBA APEZETXEA

TALLERIKALEA 3
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
TEL. 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: apeze@euskalnet.net

Gorka García Llamosas

608 16 76 18
gorkiguay@hotmail.com



Txakur eta katuentzako pentsumak
Prezio onean
Etxera eramaten dizugu

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txoverri etorbidea, 5-4
413 Irujoa
48100 Deia

Teléfono eta faxa
94 454 42 58
a.amondarain@euskalnet.net

MARMOLGINTZA
GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIAK

Ugaldoguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Berio, Bizkaia
T.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63



“Dantza tradizionalak badu

KUKAI DANTZA KONPAINIA | Jon Maya, zuzendaria

Betiko euskal dantzak jorratzen ditu Kukai konpainiak, baina ukitu garaikidea ematen diete konpainiako kideek. Larrabetzun izan genuen horren adibidea, Euskararen Nazioarteko Egunean. Bertan *Karrika* ikuskizunaren zati bat aurkeztu ziguten, *Sorbatza*.

t: Gaizka Eguskiza

Euskararen Egunaren haritik etorri zarete Larrabetzura. Zer deritzozue ekimenari?

Ondo. Ni normalean euskaraz bizi naiz, eta, nire ustez, euskararen erabilera egunero-egunero sustatu behar da. Hala ere, horrelako ekimen sinbolikoez gogorra ekartzen digute nolako garrantzia duen euskaraz aritzeak. Euskararen Eguna bilgunea da euskaldunontzat.

Larrabetzun *Karrika* ikuskizunaren zati bat izan genuen ikusgai, *Sorbatza*. Zuen ohiko ikuskizuna da hori?

Ez, nahiko berezia da. Kukai taldeak dantza tradizionala hartzen du abiapuntutzat, eta hortik aurrera hainbat egitasmo egiten ditu. *Karrika* ikuskizunean euskal tradizioarekin lotura duen gai bana proposatu diegu hiru koreografori, eta euren ikuspuntutik garatu dituzte gaiak; guk geure estiloarekin uztartu ditugu. *Sorbatzari* dagokionez, Virginia García eta



etorkizuna XXI. mendean"

*"Euskararen
Nazioarteko Eguna
bezalako ekimenak
bilguneak dira
euskaldunontzat"*

Damián Muñoz koreografoek Durangaldeko ezpata-dantza hartu dute oinarritzat, eta *Krump* dantza estiloarekin nahastu dute, ikuskizun indartsua eta kale-tarra sortzeko. Oso pozik gaude.

Zer da Kukai?

Kukai 2001ean jarri zen martxan. Lehenengo ikuskizuna 1937, *gogoaren bidezidorretatik* izan zen, 2002an. Dantza tradizionala oinarritzat harturik, saio garaikideak sortzea dugu helburu. Argi dagoenez, guk ez dugu dantza tradizio-

nalik egiten, baina gure lan tresna inportanteena da. Ibilbide honetan aldaketa nabarmena dago lehenengo ikuskizunen eta orain lantzen ditugunen artean. Dantzari gehienok hasiera-hasieratik gabiltza taldean, eta gaur egun zazpi dantzari finkok osatzen dugu konpainia. Ikuskizunaren arabera, dantzari gutxiago edo gehiago erabiltzen ditugu. *Karrika* saioan, esate baterako, disc-jockeyarekin batera sei dantzari aritzen gara; eta *Sorbatza* saioan, lau dantzari.

Hainbat estilo uztartzen dituzue. Puristek kritikarik bota dizuete?

Abangoardia eta tradizioa osagarriak dira. Nik uste dut dantza tradizional bizi batek baduela etorkizuna XXI. mendean. Gainera, gizarte-balioa du, eta horren alde egiten dugu lan. Kukai taldean ez dugu ezer aldatu nahi, baina guk sortze-lanak egiten ditugu. Eta ez dugu espero guztiei gustatzea; niri ere ez zaizkit gustatzen gaur egun egiten diren pelikula edo liburu guztiak. Batzuei gustatuko zaie gure lana, eta beste batzuei, ez. Baina guk zintzotasunez egiten dugu lan.

Taldeak zenbait lagunekin egin du lan: Oreka TX, Mikel Urdangarin, Carlos Nuñez... Zein da gehien gogoratzten duzuen? Zer ekartzen dizuete elkarlan haiek?

Beste batzuekin lan egiteak aberastu egiten gaitu, ikuspuntu eta lan egiteko era berriak ekartzen dizkigutelako. Izenik aipatu behar bada, taldean arrastorik handiena utzi dutenak Tanttaka Teatroarekin eta Mireia Gabilondo zuzendariarekin egin ditugun lanak dira. Guztira, hiru ikuskizun ekoiztu ditugu elkarrekin, eta hamar urteko harremanak lotzen gaitu.

Behin baino gehiagotan kanpora joan zarete. Zelan esperientzia?

Oso ondo. Kanpora irtetea beti da onuragarria, pertsonalki ez ezik, profesionalki ere. Gainera, oso harrera ona izaten du gure lanak atzerrian. Askotan, nahiz eta Euskal Herritik urrun joan, dantzaren jatorria identifikatu egin du publikoak, eta hori oso pozgarria da guretzat. Gustatuko litzaiguke gehiago irtetea, baina zein egoeratan gauden kontuan izanik, nahikoa da orain duguna.



HARATEGIA
J. ELORRIAGA
Etxeko berezitasuna: bertoko okela
Iturrikotxe,7
Tlfnoa: 94 455 89 41
LARRABETZU




Peluquería
Estética
94 455 81 44
Angulien 2. behea Larrabetzu-Bikaina



Miguel Angel Lekue, garraio-laria.
Larrabetzu
656 786 744 94 455 80 20



Oguiza
Hertz Klinika
Kirurgia eta inplanteak
Ortodontzia
Estetika eta hortzak zuritzea
Protesi finko eta mugikorak
Hortzoiaren tratamenduak
Odontologia kontserbadorea
Garbitasuna eta prebentzioa
haur-tratamendua
konponketak
Angulien enparantza, 1 • 48195 LARRABETZU • Telefonoa: 944558890



SARRIKOLA
OGITEGIA
Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta
Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



“Japoniarrek bezala, hainbat buelta eman dizkiot euskal mitologiari”

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Zelan definituko zenuke zeure burua?

Sortzailea bezain alferra. Makina bat ideia datozkit burura, baina bakar batean kontzentratzea pilo bat kostatzen zait. Euliekin arreta galtzen dut.

Nola bururatzen zaizkizu ideia horiek?

Bat-batean. Idazlearen ‘orrialde zuria’ fenomeno ez zait inoiz gertatu. Pelikulak ikustean, lagunekin hizketan nabilela... neure ideiek iturri zeharo ezberdinak dituzte, eta momentuan harrapatzen ditudan euskarrietan jasotzen ditut: paper zatietan, musuzapietan, ahozapietan...

Zelan hasi zinan marrazkiak egiten?

Gaztetxo nintzela, Ninja Dortokak marrazten hasi nintzen bestelako motiboekin batera: Son Goku, tigreak... Poliki-poliki nire marrazkiak egiten hasi nintzen, eta 15 urte nituela mundu honetan bizitzea gustatuko litzaidakeela erabaki nuen.

Zelako ikasketak dituzu?

Bilbon Batxiler artistikoa egin ostean, Arte Ederrak ikasten hasi nintzen. Baina bertako irakasleek sormena azpimarratzen zuten, eta ez teknika. Nik teknika behar nuen. Horregatik, urte bi egin eta gero, karrera bertan behera utzi eta ilustrazioko goi-mailako modulua egiten hasi nintzen Gasteizen, eta Bilbon bukatu. Ziklo horren azken urtean proiektu bat aurrera eraman behar zen, eta nik liburu bat egitea erabaki nuen, batez ere etorkizun komertziala ikusi niolako.

IGOR RAMOS | marrazkilaria

Esaten da lehen liburua kaleratzea lehen seme-alaba izatearen antzekoa dela. Bada, Igor Ramos zamudioztarra aita goiztiarra izan da. Abenduan *Mariren Seme-Alabak* argitaratu du, euskal mitologiaren inguruko formatu bereziko liburua. Durangoko Liburu Azokan ikusi ahal izan genuen, Barton Films *standean*.



TXORIERRI MARMOLDEGIA
Sukalde eta bainugeletako harriak
Faxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoti ind., 7 B.P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

Gorbea kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

“Ideiak era askotako euskarrietan jasotzen ditut: paper zatietan, musuzapietan, ahozapietan...”

“Dagoeneko, badaukat beste hamar liburu egiteko materiala”

Atera berri duzun Mariren Seme-Alabak liburua, hain zuzen ere.

Euskal mitologiaren inguruko liburua da. Gai honi buruzko liburu ugari daude merkatuan, baina gehienek oso formatu antzekoa dute, nahiz eta marrazki ezberdinak izan. Zerbait berria egitea otu zitzaidan, japoniar erara. Haiek txinatar edota japoniar mitologia hartu, hainbat buelta ematen diote eta mangak, komikiak, Pokemonak... edozer ateratzen dute handik. Horixe egin dut nik euskal mitologiarekin. José Miguel de Barandiaran autorea erreferentziatzen hartuta, euskal gazteria gure mitologia modu berri batean ezagutzera gonbidatzen dut.

Euskal mitologiari buruzko liburu asko berdintsuak direla diozu

Bai testuei, bai marrazkiei dagokienez. Mitologiaren gaineko hainbat liburu irakurri ostean, esaterako, Tarttalo batetik bestera aldaketarik ez dagoela ohartu naiz. Beraz, nik neure ukitua eman diet nire sorkariei, bestelako erreferentzia grafikoei erreparatu gabe. Horrela, ideia freskoak erantsi dizkiet, oinarritzko ezaugarriak errespetatuz.

Produktu berria, formatu berria.

Liburuak fitxa-tekniko itxura dauka. Horretarako, oro har rol jokoetan oinarritu naiz. Kreaturak hartu eta euren ezaugarrien arabera sailkatu ditut: bizilekua, elikadura, izaera... Liburu honek zortzi izakien informazioa dakar, eta bakoitzak beraren inguruko informazio osotua dauka bederatzi orritan zehar. Nolabait, pertsonaia hauen informazioa emateko, eta orokorre-



an irakurlea liburu osotik zehar gidatzeko, Barazkian izeneko pertsonaia sortu dut, Barandiaranen omenez.

Eta ondo badoakizu...?

Mariren Seme-Alabak kreaturen entziklopedia bihurtzea espero dut: izaki gehiago, ezaugarri berriak... Azken batean, liburua ondo egituratuta dago eta, dagoeneko, badaukat beste hamar liburu egiteko materiala. Behar izatekotan, 100 sorkari inguruko zerrenda daukat, hurrengo edizioetarako.

Marrazkiekin lotura duten beste lan batzuetan zaude ere bai.

BERBAZ aldizkarian komiki-banda kaleratzen dut hilero. Bertako protagonistak Kinito izeneko marrazkiak dira. Horiek era askotako esparrutara molda daitezkeen

marrazkiak dira; are gehiago, urtarrilean Kinitoen lehen bideo-jokoa aterako dugu: Kinito Ninja. Joko arina, klasikoa, arcade formatuan, buruhauste handirik ez egoteko.

Zelan ikusten duzu animazioaren mundua?

Norberak bere buruarengan izan behar du konfiantza. Era honetako ikasketetatik irtetea ez da erraza merkatu komertzialera jauzi egitea. Horregatik, animazio enpresa ugari nazioartera egiten dute salto, eta ondoren euren lanak erdaratu edo euskaratu, kasuan kasu. Euskal mitologiaren kasuan, lana ez da hain zaila: era honetako gaiak jorratzean, azken batean, kultura jorratzen da eta hori egiteko, laguntza gehiago jasotzen da, zorionez.



a: Idoia Andres, Itsasne Zubiri, Laura Martínez

Irudi ederrak utzi dizkigu erretinan zein oroimenean Euskararen Eguna Larrabetzun. Umeei zuzendutako ikuskizun sorta zabala antolatu zen, euskara elkarten arteko Euskal jolasen Txapelketa, musika, mahai-ingurua, kontzertuak, ibilaldia, dantza ikuskizuna eta Berba zaharren Txapelketa. Horiek guztiak erabat arrakastatsuak izan ziren; izan ere, Txorierrri osotik etorritako lagunak eta euskaltzaleak batu ziren Larrabetzun, euskara gurean ere hizkuntza bizia dela aldarrikatzeko. Horrez gainera, herrietako elkarteak, ikastetxeek eta euskaltegiek ere egin zituzten ekimenak, egunari eta euskarari euren ekarpena egiteko.





Marsel Magoa



Kukai taldea

BAR BIDE-BI

Goizeko 5etatik
aurrera zabalik

Zamudio
Aukeratu zurea

Gosari bereziak

Telefonoa: 94 452 20 48
Leizaola Lehendakaria plaza, 3

CAFE-BAR BIDE-GORRI

Era askotako pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia

Txinbo Kalea, 9
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Tel. 94 452 26 79

Garmendia ardoak

Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

ERREKA ONDO ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, tinbrea eta opariak

Talleri kalea, 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 73

GUEDAN
servicios deportivos, s.a

Jesuen Bihotza plaza, 5 - Enakalduna er. 7, 1. d. l. o. a
48001 Bilbo Tel.: 94 439 80 10 - Faxa: 94 439 87 12

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA
Tel.: 94 452 21 28 - Faxa: 94 452 30 74

aek-k hitza ematen dizu

euskara ikasi eta euskaraz jakingo duzu

eman izena

azterketa
ofizialak
eta titulu
homologatuak

Derioko Txepetxa AEK euskaltegia

Txorierriko AEK Gorbea kalea 5, behea
944 543 967
txepetxa@aek.org

www.aek.org



Gurena Buzketa
para el aprendizaje
por el compromiso



**LARRABETZU
TURBERT**

**EUSKAL HERRIK
TURBERT**

ANDRA MARI KALEA
TEL.: 94 455 84 64

IRUSTA TABERNA

EGUNEROKO MENUAK
GXUEZ / MUSIKA ETA PARRANDA

Gabonetan, etxean gura doguz

LARRABETZU
Tel.: 94 455 84 77



Moro's Pub

Mascotas Maider

Kopelariako animaliak
Txiakurren ile-apaindegia
Osagarriak
Elikadura



Hangialde eta Gernikako abelaren txakurrak, 48160 Dute - T: 94 404 21 80

Zapatak
Arropa
Osagarriak
Nazioarteko markak

Tranferritu etorbidea, 9-10, lokala
(Arleaga eraikina)
48160 Dute
94 454 20 13
www.garia.com

DANI-X

FOTERI TABERNA



Andra Mari Kalea, 22
Teléfono 455 80 98

48195 LARRABETZU-Bizkaia

Urte barri on!



kukubiltxo

kukubiltxo.com
E.posta: kukubiltxo@kukubiltxo.com

MARIA LUISA TABERNA ETORKI



Eguneroko menua
Asteburuetan menu bereziak

Arebale, 5 - behea | Tel.: 94 455 84 14 | Larrabetzu

Bor-bor datozen egunak



Tor magoa

Gabonetan murgilduta gaude, buru-belarri. Argiak, soinuak, giroa, apainketa berezia... kalean zein barruan badira hori adierazten duten milaka keinu. Ikuskizunez beteta ere badatoz hurrengo egunak, familia osoak goza ditzan.

Abenduaren 23a, barikua

-19:00: Gabonetako kantak, San Martin elizan. Zamudioko Kamara Korralaren eskutik.

Abenduaren 24a, zapatua

-Gabonetako plater-tiroko saioa, Teknologia Parkeko tiro zelaian. Ehiza eta Arrantza elkartearen eskutik.

-09:00: Zamudioko Kamara Korralak Olenzero abestuko du baserri baserri.

-12:00-14:00: Merkatu solidarioa, eskolan.

-14:00: Bazkaria, eskolan.

-14:30: Pelikula, eskolan.

-16:30: Olenzero bila, eskolan.

-17:30: Olenzerorekin abestea, eskolaraino.

-18:30: Olenzerori gutuna ematea eta txokolatada.

Abenduaren 26tik 30 arte

-16:00-21:00: Gabonetako Haur-parkea, kiroldegian.

Abenduaren 28a, eguaztena

-Euskal Selektzioaren partida eta kopaua, Gazte-estazioan.

Zamudio

-20:00: Zamudioko Kamara Korralaren kontzertua. Astrabuduko San Lorenzo elizan.

Abenduaren 29a, barikua

-20:00: "Olenzero-Gabonak, kontaguzuz" Lehiaketako sariak ematea eta Tor magoaren emanaldia, kiroldegian. Lagatzuk antolatua.

Abenduaren 31, zapatua

-01:00: Urte amaierako kotiloia, Adintsuen Etxean.

-Autobusa, Mungia joateko. Izen-ematea: abenduaren 29a baino lehen, Gazte-estazioan.

-Irteera Sollubera, Arroeta mendi taldearen eskutik.

-Gabonetako plater-tiroko saioa, Teknologia-parkeko tiro zelaian. Ehiza eta Arrantza elkartearen eskutik.

Sondika

Abenduaren 23a, barikua

-19:30: Pentagrama kultura elkartearen Gabonetako emanaldia, Kultur Etxean.

Abenduaren 24a, zapatua

-17:00: Olenzero eta Belen biziduna, Udaletxean. Parte-hartzaileak: Altzora, "Txuma Olagüe" abesbatza, Olagüe talde korala, Guraso Elkartea, Gorantzaileak dantza taldea eta Ipar-elaiak txistu taldea.

Abenduaren 28a, eguaztena

-"La Fama" umorezko bakarriketaria, gaztetxean.

Abenduaren 29a, eguena

-11:30-14:00 eta 16:00-19:00: Gabonetako Haur-parkea, Goronda Beko kiroldegian.

-19:00: Oliver magoaren emanaldia, Goronda Beko kiroldegian.

Abenduaren 30a, barikua

-11:30-14:00 eta 16:00-19:00: Gabonetako Haur-parkea, Goronda Beko kiroldegian.

-19:00: Tribu TB ikuskizuna, Goronda Beko kiroldegian.

Abenduaren 31, zapatua

12:00: Dantzateke ikuskizuna, Goronda Beko kiroldegian. Zirika Zirikus taldearen eskutik.

Urtarrilaren 31 arte

Gabonetako postalen Lehiaketako lanak ikusgai, erakusketa-gelan.



Tribu TB

ZURAS
Estetika eta masajea
Aita Patxi Ugaldé, 14 behea
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

Club Hípico Aretxalde
Pony club - Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak - Apopilo zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalien heziketa
Telefona: IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 39 • 48196 LEZAMA

GOIKO TABERNA Taberna-jatetxea
Emiliano
Mero berriak antzartzen • Eguraldi onarekin eta karto
Etxera eramateko platerak • Jaurtutako eta ezberdinak
Itxialdi antzartzen • Jantoki zabala
R.ª Garmilla, 1 • Tfn. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA • Bizkaia

Abenduaren 23a, barikua

-16:00: Olentzero bila, plazan.

Abenduaren 24a, zapatua

-18:30: Olentzero, zerran.

Abenduaren 25a, domeka

-19:00: Bertso-saioa, Hori Bai-n.

Abenduaren 26a, astelehena

-16:30: Mihiluze programa, Hori Bai-n.

Abenduaren 27a, martitzena

-15:00: Irteera, Gabonetako Haur-par-
kera.

Abenduaren 31, zapatua

-Garmintxa elkartearen aldeko laster-
keta.

-Kotiloia.

Urtarrilaren 3a, martitzena

-20:00: *Buah txabal* antzezlan, Hori Bai-n.

Hori Baik antolatua (Larrabetzun)

Urtarrilaren 5a, eguena

-Hitzaldia, Zamorako kartzelaldiei bu-
ruz.

Urtarrilaren 6a, barikua

-18:00: Umeentzako filma eta txokolata-
da, Hori Bai-n.

Urtarrilaren 7a, zapatua

-09:30: "Egin dezagun bidea" ekimenare-
kin bat egin.



Loiu

Abenduaren 24a, zapatua

-11:00: Olentzero, Elotxelerrin.

-17:00: Olentzero, Zabaloetxen.

Abenduaren 26a, astelehena

-17:00: Gabonetako Postalen Lehiaketa,
liburutegian.

-19:00: Gabonetako Postalen Lehiaketa-
ko sariak banatzea, liburutegian.

Abenduaren 27a, martitzena

-10:25: Irteera, Gabonetako Haur-par-
kera, Zabaloetxen.

Abenduaren 28a, eguaztena

-11:00-13:00: Ludoteka, hiru urtetik 12
urte bitarteko umeentzat.

-18:00: Ipuin kontalaria, liburutegian.

-18:00: "6-11 urte, baliabide ez-sexistak"
hitzaldia, liburutegian.

Abenduaren 29a, eguena

-11:00-13:00: Ludoteka, hiru urtetik 12
urtera bitarteko umeentzat.

-18:00: Panpin Panpox pailazoak, ludote-
kan.



Panpin Panpox

Abenduaren 30a, barikua

-11:00-13:00: Ludoteka, hiru urtetik 12
urtera bitarteko umeentzat.

Urtarrilaren 2a, astelehena

-11:00-13:00: Ludoteka, hiru urtetik 12
urtera bitarteko umeentzat.

-18:00-19:30: VII. Azoka Txikia, liburutegi-
ko aterpean.

Urtarrilaren 3a, martitzena

-11:30-13:30 eta 16:30-19:30: Gaboneta-
ko Haur-parkea, pilotalekuan.

**Urtarrilaren 4a eta urtarrilaren 5a,
eguaztena eta eguena**

-11:00-13:00: Ludoteka, hiru urtetik 12
urtera bitarteko umeentzat.

Larrabetzu

Abenduaren 28a, eguaztena

-16:00-20:30: Patinatzerara irteera.
Zazpi urtetik 13 urtera bitarteko
umeentzat.

Abenduaren 31, zapatua

-12:00: "Urieri bueltia" I. Herri-laster-
keta, Garmitxa elkartearen alde.

**Urtarrilaren 2a eta 3a, astelehena
eta martitzena**

-16:00-20:00: Puzgarriak, kirolde-
gian.

Urtarrilaren 4a, eguaztena

-16:00-20:30: Irteera, Artium museo-
ra. Zazpi urtetik 13 urtera bitarteko
umeentzat.

Urtarrilaren 5a, eguena




-17:30: Haurrentzako berbena, kirol-
degian.

-18:00: Errege-festa, Gure Etxean.

Urtarrilaren 5a arte

-Gabonetako Postalen Lehiaketako
lanak, ikusgai. Anguleri kultur etxean.





BIZKAIKO NEKAZARIEN KOOPERATIBA ETA ELKARTEAK



LORRA, S. COOP.

Barrio Garaioltza, nº23
48196 LEZAMA (BIZKAIA)
Tel: 94 455 50 63 / Faxe: 94 455 62 45
e-mail: lorra@lorra-cg.net

www.lorra-cg.net

Derio

Abenduaren 23a, barikua

-12:00: 1.000 euroko espres erosketa-txe-kea ematea, Derioko dendetan gastatze-ko.

12:30-13:30: Derioko dendak sustatze-ko kanpaina.

-19:00: Hiruko areto-futbola, kiroldegian (gizonak). Pozgarri taldeak antolatua.

Abenduaren 24a, zapatua

-10:00: Familiarentzako jarduerak eta kirol jolasak, kiroldegian.

-10:00: Tokiko Xake Opena, kiroldegian. Xake taldeak antolatua.

-17:00: Olentzero, Errekalde parkean. Tximintx elkartearen, Ipar-Alde abesbatza-
ren eta Jauntzi Jarauntsi Trouperen esku-
tik.

Abenduaren 26a, astelehena

-2012ko egutegiak eskuragarri, Kultur Birikan eta Kiroldegian.

Abenduaren 28a, eguaztena

-18:00: Nagusien jaia, Kultur Birikan.



Ianire Sagastiren "Snow globes" erakusketa

Abenduaren 29a, eguena

-20:00: XXVI. Gabonetako kantaldia, San Isidro elizan. Ipar-Alde abesbatzak antolatua.

-20:00: VII. Erakusleihu Txapelketako sariak banatzea, Kultur Birikan.

Abenduaren 30a, barikua

-17:30: Erromeria ibiltaria, San Isidro elizan. Lainomendi dantza taldeak antolatua.

-18:00: Eskolako areto-futbola eta F7, futbol-zelaian. Arteaga taldeak antolatua.

Abenduaren 31, zapatua

-10:00: Familiarentzako jarduerak eta kirol jolasak, kiroldegian.

-10:00: Aldi Bereko VIII. Xakea, kiroldegian. Xake taldeak antolatua.

Urtarrilaren 3a, martitzena

-11:30-14:00 eta 16:30-20:00: Gabonetako Haur-parkea, kiroldegian.

Urtarrilaren 5a, eguena

-18:00: Errege Magoen desfilea, elizatik.

Urtarrilaren 10-31

- "Snow globes" erakusketa, Kultur Birikan. Ianire Sagastiren eskutik.

Urtarrilaren 13a, barikua

-18:00: "Ezagutu eskupilota. Kirol jokoak" ekimena, pilotalekuan. Atxiki taldeak antolatua.

Urtarrilaren 14a eta 15a, zapatua eta domeka

-19:00: *La hora de la fantasía* antzezlan, Gurea aretoan. Sutondoan elkartearen eskutik.

Urtarrilaren 25a, eguaztena

-19:30: Tokiko Agenda 21, Kultur Birikan. DerioKOMunikazioaren eskutik.



Lezama

Abenduaren 24a, zapatua

-17:00: Olentzero, plazan. Kalejira, dantza, musika... Zorritzetan eta Gurutze dantza taldearen eskutik.

Urtarrilaren 2a, astelehena, eta 3, martitzena

-11:30-13:30 eta 16:30-20:30: Gabonetako Haur-parkea, pilotalekuan. Puzgarriak, kulunkak, ohe elastikoak, bideojokoak, tailerrak...

Urtarrilaren 20a arte

- Gabonetako Postalen Lehiaketako lanak ikusgai, liburutegian.

XURREGOTTI
JATETXEA
Laura eta etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteauregotti.com

elekma
URRATZAREN BAT OLTZEN ETZETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISIAK ETA ETZETRESNA ELEKTRIKO TOSAK
leherengo markak • Prestakoi onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Tasarien etorbidea, 25-3 N • 48180 Lolu
T: 944 539 232
www.elekma.es

On egin kafetegia
Hamburgesak - oarrakokak - sirtanekoak
plater konbinatuak - gosariak Tzatik surrerak
pastelak enkarguz
etxera eramateko zerbitzua

Aretxalde sutor, 48-bidea
48196 Lezama **94 455 63 94**

Altzari
EBANISTERIA - CARPINTERIA, S.L.
Zuretzko lanetan espezialistak

Alain Pomposo Zarate
946 740 141
663 209 209

www.altzari.com
altzari@altzari.com

Luisine, 2 - Belako Elkarteja, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA

Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

Pentsu naturalak



**Hemen hasten da
Zamudio barria**

54 ETXEBIZITZA
2-3 LOGELA
204.000 €tik
Aurrera
(Aparkalekua eta Trasteroa barne)

ZAMUDIO
Vivienda y Gestión

Etorri geugaz 94 439 90 49

Orain, etxebizitzak Derion ere bai. Deitu



**LARRABETZUKO
ESTANKOA**

Tabakoa, prentsa, loteria, kiniela...

Andra Mari kalea, I LARRABETZU
T: 944 558 110



**POLITENA
TABERNA**

Andra Mari
Larrabetzu, Bizkaia
tel.: 94 455 84 07



Urte
zoriontsu
eta
euskalduna
opa dizue

Arrekikili
Urte zirikili

Larrabetzuko euskara elkarteak



OKINDEGIA - GOZOTEGIA
TXISPAMENDI

Gaztelumendi, 1 - Larrabetzu (Bizkaia) - 94 455 89 35

INGELESA
Gaztelumendi, 1
E.O.I. (de 8h)

FRANTZESA
TXINERA
EUSKARA
GAZTELAMA

ESKOLA LAGUNTZA
EUSKARA SINDIKATU
EUSKARA 2

ENPRENTZAKO IKASTAROAN
MILIA GUZTIAK
ORDUTEGI MALGUAK




IKASGELA
AKADEMIA

ETORRI
ETA HIZKUNTZAK
IKASTERA ANIMATU

Alta Patel Ugalde, 12 - 48195 Larrabetzu Tel: 615 70 73 61 ikasgela@hotmail.com

Patricia eta Adrianaren baso sorgindua

Gabonetan, jaiotza jartzeko ohitura dago Euskal Herriko etxe askotan. Bilbon, esate baterako, izugarriko erakusketa antolatzen dute abenduan. Txorierritarrok ez dugu hiriburura joan beharrik, Lezamako etxe batean dagoelako ikusgai jaiotza erraldi bat. Eta urte osoan, gainera.





t: Gaizka Eguskiza / a: Jon Goikouria Larrabeiti

Ana eta Fernando bilbotarrak dira, baina hiriburutik irtetea erabaki zuten 1994an. Azkenean, Lezaman erosi zuten etxea, Garaioltza auzoan. Urte batzuk geroago, 2000. urtean, euren lehenengo alaba jaio zen, Patricia, eta ondoren, beste, Adriana. Umeak jaio zirenean, aito-

nak, Txema Barrónek, zerbait berezia egin nahi izan zien eta horrela sortu zen euren "baso sorgindua". Baso horren altxor nagusietako bat urte osoan dagoen jaiotza da.

Txemak lagundu zion semeari etxea bilatzen. "Etxea erosi zutenean, inguruko lurretako zati batek ez zuen ezertarako balio, zaborrez eta sasiz beteta zegoela-

"Nagusiak direnean, gustatuko litzaidake neskek hau esatea: "Hori aitonak egina da""

ko. Denboraren poderioz, gunea garbitu eta hesia jarri genuen. Dena apaindu genuenean, jaiotza jartzea bururatu zitzaidan. Niri jaiotzak gustatu zaizkit beti. Gaztetan lehiaketa bat irabazi nuen neurere auzoan, Uribarrin. Jaiotza bainugelan jarri nuelako eman zidaten saria, bitxia iruditu zitzaien. Etxea txikia zen, eta ez zegoen beste lekurik!", esan digu Txemak.

Txemaren asmo bakarra bilobei "ondarea" uztea da. "Nagusiak direnean, gustatuko litzaidake neskek hau esatea: "Hori aitonak egina da". Gainera, ohitura hori belaunaldiz belaunaldi zabaldu nahi du Txemak. "Seme-alabak edo bilobak dituzenean, zaindu egin behar dituzu. Behin semeak esan zidan nire bilobengatik egin dudana berak ere egingo duela bere bilobengatik. Hori oso pozgarria da niretzat, eta horregatik merezi du egin dudana la-

nak". Jaiotza aire librean dago. Hori delata, lan handia eskatzen du hura mantentzeak. "Zuhaitzez inguratuta dago, batez ere haritzak eta eukaliptoak, eta, euren hostoak jausten direnean, garbitu egin behar da. Bideak ere zaindu behar dira,


"Ez genekien munduko oherik onenak Bilbotik hain hurbil saltzen zituztenik."

Hästens
JENSEN
auping

SUITE DELUX
MARKA ESCLUSIBOAK. ATSEDENERAKO

Colchonería Leioa La Avanzada 80, (Bilborako norabidea) 944 316 516	Colchonería Arteaga Derioko Seminarioa, (eguerdian zabalik) 944 545 147	Lotara Koltxoi-Denda Errebal 19, Eibar 943 202 784
---	---	---

www.SUITEDELUX.com



bestela zaila da hortik igarotzea". Arazoak arazo, natura gordinean egoteak xarma berezi bat ematen dio jaiotzari, Txemaren esanetan. "Inguruan goroldioa eta landa naturalak sortzen dira; horregatik izango ez balitz, jaiotza arrunta izango litzateke".

Txemak berak egin du jaiotza, baina batzuetan lagunek, auzokideek eta senideek lagundu eta zerbait ekarri diote: harriren bat, irudiren bat... "Fernando senarra harrizalea da, eta kanpoan gaudela, harriak ekartzen ditu (Italia, Malaga...). Haietako batzuk jaiotzan jarri dituzte", dio Anak, Txemaren errainak. Herri txiki bat izango balitz bezala, jaiotza hazi egin da denboraren poderioz, eta urtero-urtero ditu osagai berriak: artzainak, animaliak, erregeak.... Txemak egindako erreka naturalak ere zeharkatzen du jaiotza.

Musika eta argia

"Garai batean, argia eta musika jarri nituen, baina kendu behar izan nituen. Izan ere, han hezetasun handia izaten denez, kableak-eta beti apurtzen dira. Penagarria da, jaiotza askoz politagoa izango litzateke argiekin....". Apainketa guztiek lan handia eskatzen diote Txemari. Egutero hartzen du trenan Matikoko geltokian goizeko 8etan. Handik Lezamara abiatzen da eta lanari ekiten dio semearen etxean. Hasiera batean, asteburuetan joaten zen, baina orain egutero-egutero joaten da.

Txemak badu denbora librea. Jubilatua da, eta 82 urte ditu. Lehen, plastikozko produktuak saltzen zituen. Oso ekintzaila da, nahiz eta orain geldirik egon belauneko ebakuntza egin diotelako. "Ni hirikumea naiz, eta, semeak Lezamako



48196 LEZAMA Buzia Carretera auton. 36

S.A.T. LEGU
SERVICIOS DE ASESORIA Y ASesoramiento

F: 94 455 64 17 T: 94 455 61 98

**ELORRIETA
INSTALACIONES**

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 - 639 58 25 47

“Jaiotzaren inguruan goroldioa eta landa naturalak sortzen dira; bestela, jaiotza arrunta izango litzateke”

Herri txiki bat izango balitz bezala, jaiotza hazi egin da denboraren poderioz, eta urtero-urtero ditu osagai berriak

etxea erosi arte, ez dut inoiz baserriko lanik egin. Apurka-apurka, ekinaren ekinez, ikasi egin dut eta baserriar edo al baitari aritu naiz. Ezin naiz geldirik egon, beste jubilatuak egiten duten moduan. Lezamako lorategia zaintzea izugarri gustatzen zait, eta bizitzeko grina ematen dit’.

Umeez ere alaitzen dute Txemaren bihotza. Batzuetan, Lezamako eskolako haurrek bere jaiotza bisitatzen zuten, baina azken bolada honetan ez dira joan. “Primeran pasatzen genuen: bilobek harrotasunez erakusten zieten jaiotza ikaskideei, eta haiek, poz-pozik. Gainera, gozokiak ematen genizkien”. Inguruko mendietatik ibiltzen diren mendizaleak ere hurbildu dira inoiz jaiotza ikustera. “Goiko tabernatik datorren bidetik ikusi egiten da”, aipatu du Anak.

Baso sorgindua

Jaiotza ez da neska Barróntarren baso sorgindua osatzen duen gauza bakarra. Bazter guztietan magia ukitu batzuk ipini ditu Txemak: zenbait figura (Olentzero, Eburne zuri, Panda hartzak, Begoñako Ama Birjina), edo heskaiz egindako animaliak edo itsasontziak, esate baterako. Gainera, ur naturalez hornitutako putzu txiki bat ere apaindu zuen, bilobek bertan arrantzan egiteko. Gabonak amets egiteko garaia da, baina Adrianak eta Patriciak urte osoan egiteko aukera dute, aitona lanari esker.

Kitchen sukaldeak
Bertoko sukaldeak, kalitate oneko sukaldeak

ERAKUSKETA
SALMENTA
INSTALAZIOAK
ARMAIRUAK, SUKALDE ETA BAINUGELAKO ALTZARIAK

TT.: 94 656 85 69
Faxa: 94 656 85 70
kitchensukaldeak@euskalnet.net

Txorierriko etorbidea, 9
Arteaga eraikine
48160 Derio (Bizkaia)

MAYORISTAS INFORMATICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - http://www.rpmmayoristas.com

BITXITEGIA - ERLOJU-DENDA
Ruben

Lehendakari Leizola Plaza, 5 - Tel.: 94 452 14 49
Zamudio (Bizkaia)

aldekone hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urtze 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak zentro bakar batean
-Aurrikortu da
-Especialitatea: umeak

eleizalde kafeategia

Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean)

48160 DERIO
Tel.: 94 454 52 88



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lantze Heziketa eta Bigarren Heziketarako Ikastetxea

Urtzagui Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DERIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako zentroa

EUSSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE ECONOMIA, EMPLEO Y FAMILIA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE



Urtze Q
kalitate-kudeaketaren euskal saria
lortzen duen Urtze
(Bizkaiko lehenengo ikastetxea)



Gure tailer eta laborategiak ezagutzera etorri

ATE IREKIEK JARDUNALDIA
Ekainaren 3an, 18:30ean

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Diseinua fabrikazio mekanikoa (2.000 ordu)
- Diseinua fabrikazio mekanikoa Goi maila (2.000 ordu)
- Produzioaren programazioa Goi maila (2.000 ordu)

KIMIKA

- Ingurumen-kimika Goi maila (1.400 ordu)

ELEKTRIZATEA ETA ELEKTRONIKA

- Erregulazio eta kontrol automatikoen sistemak Goi maila (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta informatika sistemak Goi maila (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Merkataritza eta marketin gestioa Goi maila (1.400 ordu)

Batxillergo tekniko eta zientifikoa



“Gizonei eskatu behar diegu haiek aldaketaren eredia izateko”

MIRIAM HERBÓN | feminista eta prestatzailea, jabekuntza-prozesuetan

Filmean azaltzen diren gaiak indarrean daude edozein gizarte eta testuingurutan.

Erat. Enpresa askotan dago laneko jazarpena, sexu-jazarpena, soldata eta ordutegi arloetako desabantailak, zailtasunak lanpostua hobetzeko edota ama izateko... Gainera, beste mota bateko urrakortasun-egoerak ere aztertzen dira pelikulan: bortxaketa, adibidez. Eta hori gure gizartean, babesten gaituzten lege asko egonda; pentsa ezazue zer gertatuko den munduko beste latitude batzuetan.

Jakin badakigu gizonen lurraldean bizi garela?

Nik uste dut ezetz. Emakume gazteok, batez ere, emozio-jabekuntza lortu dugula pentsatzen dugu, baina ez da horrela. Mutilekin batera ikasi dugu, lan egiten dugu, ez dugu gure sexualitatea ezkutatu behar edo amatasunari ez diogu mugarik jartzen... Hala ere, estu gabiltza, ezin diogu lanari eutsi, senarraren beharra dugu... Eta ondoez horri izena ez jartzearen deserosotasunean gabiltza murgilduta. Banako arazoa dela uste dugu, baina sintomak kolektiboak dira, horiek emakume askok dituztelako. Eta sufritu egiten dugu, hezi gaituzten moduak sufritzeraz eramaten gaituelako. Ondoeza, nire ustez, arazoaren erroa zuzentzen ez diren errebinkazioez osatzen saiatzen gara.

“Emakumeak izateagatik soilik bagara genero-indarkeriaren biktimak, hura zaplastako bat baino zoliagoa delako”

Zamudioko Udalak *En tierra de hombres* zine-foruma antolatu zuen Azaroaren 25-aren haritik. Ekimena Miriam Herbónek zuzendu zuen. Miriamek Sortzen emakumeen jabekuntza eta gero-indarkeria arloetan diharduen kontsultoretzan egiten du lan.

Adibidez?

Gizonek dituzten eskubideak eskatzen ditugu guretzat, baina ez dugu aztertzen zelan jokatzeko dugun emozio-munduan. Benetako arazoa hau da: maitasuna zelan bizi dugun bikotearekin, seme-alabekin, familiarekin, lagunekin... Besteengandik maitasuna eta esker ona lortzeko egiten dugu hau edo bestea, eta

geure burua lehen pertsonan maite arte, ezin izango gara osatzen joan. Eskubidea dugula sentidu behar dugu.

Zer da jabekuntza?

Emakumeok indarra eta gaitasuna dugu, historikoki eta sozialki ukatu zaigun boterea geure buruari emateko. Baina, ez baduzu hori hartu nahi, ez du ezertarako balio nik zuri emateak; zure-



tzat onuragarria dela pentsatu behar duzu, eta legitimoa. Gainera, sintoma berberak dituzten emakumeak elkarrekin aritzen badira, ahalmen kolektiboa sortzen da, eta indarrak batuz aldaketa sakonari ematen zaio bidea. Helburua ez da gizonei boterea kentzea, baizik eta haiek duten, eta berez ez dagokien tartaren zatia emakumeoi itzultzea. Eta negatibotzat hartzen dituzten gauzak abantailatzat jotzen has daitezela, seme-alabekin haiek ere baduten ardura, esate baterako.

Zelan lortu?

Emakumeok geure burua baloratzen dugu besteekin dugun harremanaren arabera: alaba onak bagara, emazte, ama edo lagun onak. Gizonek, berriz, existitzeagatik soilik baloratzen dute euren burua. Guk orduak eta orduak ematen ditugu lan egiten, etxean, lanean..., musu-truk gainera, besteek balora gaitzaten. Eta guk ere existitzeagatik soilik inportanteak garela barneratuko bagenu, ez ginatke egongo hain deprimituta eta larri, norbaitek aurpegi txarra jartzen digunean.

Barneratzen joan garen ereduak eragina dute horretan.

Maitasun erromantikoaren eredia aldatu behar dugu, ahul bihurtzen gaituelako eta indarkeria sinbolikora eramaten gaituelako. Eredu hori ipuinen bitartez, umeei helarazten jarraitzen dugu. Adibidez, Edurnezurik etxea apaintzen du ipotxentzat, eta gatazkan sartzen da beste emakume batekin, eta sagar pozoitua jan ondoren, lo gelditzen da, eta printzeak baino ezin du esnatu. Eta noski, printzea berak nahi duenean ailegaten da. Ipuinetan azaltzen diren rolak konturatu gabe errepikatzen ditugu, eta balio horiek albo batera utzi beharko genituzke, benetan inportantea denari garrantzia emateko. Guk geure buruaren erantzule izan behar gara, eta besteekin dugun harremana erantzukizun horretan oinarritu behar dugu. Gure zoriontasuna geuk eraikitzen dugu, ez beste inork.


Genero-indarkerian ere bai.

Elkarrizketa hau egin orduko, 65 emakume hil dira Estatuan aurten. Baina hiltzear daudenak edo hilda baleude bezala bizi direnak ere badaude. Eta etorkizunean genero-indarkeria jasoko

dutenak ere bai. Are gehiago, nik uste dut emakume guztiak emakumeak izateagatik soilik bagarela genero-indarkeriaren biktimak: gizon batek isiltzeko esan digunean, nahi ez dugun bezala begiratu digutenean, dagozkigunak baino betebeharrak gehiago hartzen ditugunean, gauean etxera bakarrik goazela atzera begiratzen dugunean... Genero-indarkeria zaplastako bat baino zoliagoa da.

Gehiago exijitu behar zaie erakundeetara eta gizarteari?

Nik uste dut gizonei eskatu behar diegula haiek aldatetaren eredia izateko. Gizonek helarazitako mezuak hobeto ailegaten dira gizonengana, eta haiek ere hasi behar dira emakumeon errebindikazioen bozeramaileak izaten. Iraultza emakumeok egiten bagabiltza ere, onurak guztiontzat direlako. Azaroaren 25a hausnarketarako eguna izan beharko zen, beste terrorismo mota batzuekin alderatzen badugu, genero-indarkeriak mundu osoan biktima gehien sortzen dituen delako. Izan ere, lege soziala egon arren, arazo pribatutzat hartzen jarraitzen du gizarteak.



Amets amerikarraren bila



t: Gaizka Eguskiza

IZASKUN KORTAZAR | euskara irakaslea, Boisen

Euskara atzerrian irakastea betiko ametsa izan da Izaskun Kortazarrentzat, eta horregatik duela zortzi urte Estatu Batuetara joatea erabaki zuen. Nora eta Boiserara abiatu zen gazte sondikarra, Amerikako herririk euskaldunenetariko batera, alegia. Han euskara eta gaztelania eskolak ematen ditu.

ko. Besteak ondo ezagutuko bagenu, askoz errespetu handiagoa edukiko genuke, eta arazo eta guda gutxiago egongo liriteke munduan. Gaur egun elebarrak edo kultura bakarrekoa izatea ga-bezia da”.

Izaskun 2003an heldu zen Amerikara, eta azken urteotan Literatura espainolaren masterra egiten ibili da. Eskolak ere eman ditu leku batzuetan. Gaur egun Boiseko Euskal Museoan dabil lanean. Gainera, NABOk (North American Bas-

que Organization) euskara koordinatzailea da, eta heziketa ematen die 232 ikasle eta 16 irakasleri. Era berean, Boise State Unibertsitateko espainol irakaslea da. Oraindik ez daki noiz itzuliko den, eta ez du planik egiten etorkizunari begira. “Urtebete pasatzera etorri nintzen eta dagoeneko zortzi daramatzat hemen”.

Izaskunen hitzetan, “bizitza, berez, abentura da, eta Boisen egotea abentura horren barruko beste bat da. Esperientzia berriak edukitzeko aukera ematen dit, baita ikasteko abagunea ere”. Leku erraza da Boise herria bertan bizi izateko. “Lasaia da, eta langileak izan arren, oso ondo pasatzen ere badakite. Euren esaten duten moduan, “work hard, play hard”, hau da, gogor lan egin, gogor jolastu. Gainera, baikorrak dira, eta ez dute inor kritikatzten. Ez dira batere klasistak. Elkarri asko laguntzen diote oro har”.

Horrezaz gainera, Idahoko herria oso euskalduna da. “Boisen bizitzea beste leku askotan baino errazagoa da, han euskal kultura bizirik dagoelako, baina ez da Euskal Herrian bezalako. Euskal kultura bizia da hemen, baina azpikultura da kultura amerikarraren barruan”. Dena dela, garrantzi handia ematen diote kulturari. “Amerikarra izateak ez zaitu beste-

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Aislamientos Derio Tabikeak

Pladurrezko sabaiak eta apalategiak
Sabai erregistragarriak

Isolamendu termiko eta akustikoa

Alerza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientoerderio.com

Baduzu arazorik nahi duzun lekura iristeko?



Etxebizitzetarako igogailuak

Eskailera igogailuak

Plataformak

Arazoei agur...



902 54 08 54 www.arlan.biz

engandik bereizten. Beraz, hemengo askok arbasoen kulturara jotzen dute, iragana ezagutu nahian. Hori dela-eta, lan handia egiten dute kulturaren alde. Bada-kite haiek egiten ez badute, euskal kultura desagertu egingo dela, eta euskaldunen horrenbeste ondorengorik ez dagoela; hortaz, haien esku dago kulturaren iraupena”.

Boiseko adierazpen kulturalen artean, Euskal jaialdia da famatuena. Gazte sondikarra 2010ean egon zen bertan. “Euskal Herriko lagun asko etortzen dira, eta itzel ondo pasatzen dute. Iaz Sondikako Alfon Atela eta Taberna Ibiltaria taldea ezagutu nituen jaialdian eta euskal kanten inguruan trukatu genituen ideiak. Primeran pasatu genuen. Hala ere, nire ustez, askoz interesgarriagoa da Inazio Deuna jaia. Urtero ospatzen da uztailaren azken asteburuan Boiseko euskal kalean. Bertakoak ezagutzeko aukera paregabea da”.

Etxea gogoan

Nahiz eta atzerrian egon, Izaskun saiatzen da Euskal Herriko egunerokotasunaren berri izatea. “Badakit Txorierrin gero eta elkarte gehiago daudela euskararen alde eta mintzalagun kopurua ere handitzen doala, eta horrek pozten nau. Txorierrin euskalduntzea oso garrantzitsua da ondorengo belaunaldiak gure kultura gal ez dezaten”. Izaskunek jendearekin hitz egitea, jaiak eta janaria ditu gogoan. “Boise ez da aldatzen; Bilbon, oster, aurrerakuntza itzelak daude, gero eta poli-



“Urtebete pasatzera etorri nintzen eta dagoeneko zortzi daramatzat hemen”

tago dago, gero eta zerbitzu gehiago... Etxean, eta European oro har, beste balore batzuk daude, aurrerakoia. Euskal Herrikoak kezaka dabilta beti, eta eurek dutena ez dute eskertzen”.

Bere ustez, “European inon baino gizarte-laguntza handiagoa dago: langabezia, osasuna, garraioak, txiroak... Amerika, berriz, munduko herrialderik aberatsena da, baina ez diete gizarte-kontuei jarmonik egiten”. Era berean, Izaskuni ez zaio Estatu Batuetan duten “kontsumismoa” batere gustatzen, ezta “heriotza zigorra” ere. “Duela egun bi, gizon bat hil zuten, esate baterako. Legeak oso zorrotzak dira eta haietako asko mendekuan oinarritzen dira. Euskal Herriko lege asko ere “amerikanizatzen” ari dira eta hori arriskutsua da”. Dena dela, alde onak ere badituzte amerikarrek. “Hemengoek euren ametsak jarraitzen dituzte, eta lan handia egiten dute, hori lortzeko”. Estatu Batuetakoek egiten duten moduan, Izaskunek ere gogor egiten du behar bere ametsa eskuratzeko. Eta horregatik dabil Amerikan, aukeren lurraldea omen delako.

Consulting Sondika s.l.
Sabin Askolizaga
Aseguru agentea
Allianz
609 473 746
Mitxine, 15 beheak
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

Ford Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala
Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31

urel
Psicologia Social
Psicología - Pedagogía - Logopedia
645 147 982
Mitxine, 3 beheak • 48150 Sondika
www.urel.es • urel@urel.es

Peñasko
arraindegia
Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

Patxi KOOP.
BANATZAILE OFIZIALA
Mahón
www.PATXI.COOP
Saketeko telefonoa: 907 67 73 00
NEINVER pol. - Etezarre kalea, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
+ faxa: 94 452 25 87
patxiscoop@patxi.coop

GORBEIA MERTZERIA
Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 855 90 06

t: Itxaso Marina / a: Alain Asenjo

Pozik egoteko modukoa da.

Emaitzagaz oso pozik gagoz. Eta ni oso harro nago albumagaz zein parte hartu dabenakaz, behar izugarria egin dabelako. Prozesu luzea izan arren, oso gustura ibili gara eta hori nabaritu egiten da diskoa eskuartean hartzen danean. Sei hilebetetan zehar mimoz egindako beharra izan da.

Diskoaren 10 abestien berbak zuk zeuk idatzitakoak dira. Zer kontaten deuskue?

Kanta generikoak dira orokorrean, edonork bere egin leikezanak. Entzule moduan, kantakaz identifikauta sentidutea gustaten jat, eta horren bila ibili naz berbak idazteko orduan. Eguneroko bizitzaren sentipenak eta uneak islatu dodaz abestietan: maitetasuna, bizitzea, heriotzea, herria... Baina badago gai bat guztietan agertzen dana: adiskidetasuna. Letrak zein musikea era naturalean azalera tu ziran eta hareen baitan itxi doguz, bakarrik azaleko aldaketak eginez.

Bateren bat azpimarratuko zenduke?

Galaxia da, baina badagoz hiru oilo-eperdia jarten deustienak. Bata *Zure al-tzoan* da, gutaz arduratu dan eta bihotzez maitetu gaituen personea hilten danean ixten dauen hutsuneaz mintzatzen dana. Bestea *Ortizimugarantz* da, iragan eta gaur egungo oroitzapen asko kondentsatzen dituana, eta sortu zanetik kaleratu dan arte sentimentalki eboluzinoa euki dauena. Eta azkenik, *Itsasargia*, bizitzan

“Lagun askoren talentua o

GAIZKA PEÑAFIEL | musikaria

Gaizka Peñafiel lezamarrak *Lagunartean* diskoa aurkeztu barri dau, bakarlari moduan bere lehendabiziko beharra dana. Trikitilariak musikaren beste esparru batzuetara jo dau, eta pop eta folk-kutsua dauan disko intimista landu dau.

nor izan eta zer egin gura dogun konturatzaren garan momentuaz hitz egiten daue-na.

Trikitilari bezala ezagutzen zaitugu; halanda be, diskoak ez dau trikitixa ardaztat.

Trikitixa lagun dodala ni neu ikustea da ohikoena, baina txikitatik erakarri nabe beste instrumentu batzuk, eta azken urteotan askogaz ibili naz jolasten. Batez be gitarra erabili dot diskoa konposatze-

ko; halanda be, maketan beti trikitixa sartzaren neban lehenengo, azkenean erosen sentiduten nazen tresnea dalako, eta emoten dituan aukerak hobeto menperatzen ditudalako. Trikitixaren eragina estudioan gengozala areagotu zan, eta maketan baino presentzia handiagoa dau orain. Bestetik, diskoaren estiloari jagokonez, zer sortzen ari ginan ez dogu inoz balorau, etiketen zalea ez nazelako eta sorkuntza-prozesua freskoa eta naturala izatea gura gendualako. Baina oso album poperoa urten jaku, folk-kutsu izugarria be badauena.

Lagunak euki dozuz kolaboratzaile diskoan: Kepa Junkera, Xabi Solano... horregaitik izenburua?

Diskoan parte hartu daben idazle eta musikarien artean badira batzuk beste batzuk baino proiektino handiagoa dabenak, baina niretzat danak dira garrantzitsuak, maila berean. Kasurik adierazgarriena Iñaki Aretxabaleta lezamarrarena izan da, beharbada. Betiko laguna da eta diskoan bai ala bai agertu behar zana, halako adiskideek sentidu handiagoa emoten deusielako izenburuari. Diskoan parte hartzeko eskatu jakenean, inork ez eban eskakizunik egin eta bidean erraztasunak baino ez dira egon. Ganera, kola-



“dago diskoaren funtsean”



“Erraz entzuten dan beharra da, melodia sinpleak eta hitz garbiak dituan”

borazino edegiak izan dira oso, bakoitxak kantuak eskatzen eutsana bere izaerea ezarriz grabau dauelako. Inplikazio profesionala ez eze maila pertsonalekoa be bada azpimarratzekoa, proiektuagaz hasiera-hasieratik egin dabelako bat. Horregaitik, azalean nire izena agertzeak ez dau esan gura diskoa bakarrik nirea danik; lagun askoren talentu eta ekarpenen buztarpena dago haren funtsean. Ondorioz, argi egoan zein izan behar zan izenburua. Juan Luis Goikoetxeak ederto adierazo dau hitzaurrean: “lagun artean, artea lagun agertu da Gaizka herriko plazara...”

Diskoaren ekoizpena www.gaizka-penafiel.com webgunearen bidez jarraitu dogu.

Emaitzen aldekoa baino, prozesuen aldekoa naz, ganorazko prozesuek normalean emaitza onak dakarrezalako. Ga-

nera, halako ekoizpenak oso aberasgarriak izaten dira eta bada zer kontau eta erakutsi barrutik bizitzen ez dabenei. Egia esan, feedback izugarri ona jaso dogu bloga jarraitzen eben personengandik. Behar handia bada be, entzuleek merezi dabe sukaldatutakoaren errezetea ikustea, hau da, 10 kanta baino gehiago aurkeztu dakien. Guztiz disko pertsonala izatea gura neban, eta horregaitik, webguneaz ganera, diskoaren diseinuaz, argazkiez eta bideoez be arduratu naz; Alain Asenjo eta Asier Olazarren laguntza parebakoagaz, jakina.

Nora eroango zaitu?

Promozioan gabilz buru-belarri, eta diskoak jasoten dauen harreraren arabera aztertuko dogu zuzenekora eroatea. Momentuz, Lezaman egingo dogu aurkezpena abenduaren 23an, Uribarri Topalekuan. Hau ez da nire bizitzea aldatzeko edo nire karrerari bultzadea emoteko egin dan beharra; aspalditik gordeta neukana adierazoteko beharrak bultzatu nau.

Zelango beharra da?

Erraz entzuten dana, eta melodia sinpleak eta hitz garbiak dituan. Edozeinek entzun leiken diskoa da: gazteek izango dabe euren gustuko kantaren bat, gurasoek besteren bat, eta aitita-amamek be besteren bat, beharbada. Hori, besteak beste, ekoizpen musikalaz arduratu dan Asier Ercillari eta hitzak moldatu dituan Beñat Gaztelumendiri esker izan da, kan-tei aparteko ikusmira emon deutseelako. Dana asmatuta egon arren, guztion artean nahasketa interesgarria sortu dogula uste dot.

Autoekoizpena da; zeintzuk dira horren abantailak?

Dan-dana erabagiteko aukera euki dogu eta, beharra amaitu ostean, Bagabiga diskoetxeagaz kaleratzea erabagi dogu, diskoak behar eban euskarria eskaintzen deuskuelako, erabagite-ahalmena murriztu barik. Ekoizpen orokorraz Asier Olazar eta ni neu arduratu gara, eta benetan konturatu gara zelango beharra ekarten dauen disko bat kaleratzeak. Diskoa Asierrri eskini deusat, beragaitik ez balitz ez gendukelako izango esku artean.

Jabeen erkidegoak, garaieak eta lokalak

Diru-laguntzak lortzeko izapideak:
etxaurreak, teiatuak...

Arreta pertsonalizatua

Administratzaile kolegiatua

San Miguel, 4 - Amorebieta-Etxano
etxadi@gmail.com
Tel.: 94.630.88.65

MARTEGIA + URDAITEGIA

VICTOR

ARTISANAL ELABORAZIOA

Oxela ekoizten dugu:
odolosteak, txorizoa,
txistorra, solomoak...

Plater aurrekoiznatu

Golri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17

GALAISA

Estetika eta ileapaindegia

94 453 04 85 - 94 471 10 51

Elengabeko ordutegia

Sabino Arana 1-3, SONDIKA

ASESORÍA

Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrazaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Elkarbizitza, spray eta rap-kolpe



Txorierriko Mankomunitateak “Nola egin aurre gatazkei?” ekimena jarriko du martxan urtarrean. Ekimena Esku-hartze komunitario sailetik eta Gazte informazio bulegotik koordinatu da, eta gazteak bitartekotza arloan sentsibilizatzea du helburu. Besteak beste, umorea, Rap-a eta graffitiak erabiliko dira horretarako. Janire Akasuso Esku-hartze komunitarioko teknikaria da; eta Fernando Gardezabal, gazte teknikaria. Proiektuaren nondik norakoak eurek azaldu dizkigute.

Zergatik sustatu ekimena?

Garrébil kultura eta hezkuntza arloetako ekimenak garatzen dituen enpresa da, eta aukera eman ziguten gurean egitasmo hau egiteko. Interesgarria iruditu zitzaigun, izan ere, gatazken aurrean indarkeria edota irainak erabiltzeko joera nagusi da gizartearen. Horren haritik, uste dugu, gatazkei aurre egiteko, gazteei beste mota bateko erremintak erakutsi eta eskaini behar zaizkiela.

Zeintzuk gaztek hartuko dute parte egitasmoan?

Egitasmoa 12 urtetik 16 urtera bitarteko gazteei dago zuzenduta; hau da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan dabilen neska-mutilei. Guztira 500 lagun inguruk hartuko dute parte proiektua osatzen duten ekintza ezberdinetan. Ekintza batzuk institutuaren bidez koordinatuko dira; eta beste batzuk, gaztelekuen bidez. Aipatutako gazteak dira etorkizuneko helduak, eta, beraz, eurek osatuko dute etorkizuneko gizartearen. Hau bezalako ekimenen bidez ingurune garatuago batean bizi ahal izatea dugu helburu, indarkeria

Egitasmoa 12 urtetik 16 urtera bitarteko gazteei dago zuzenduta, eta guztira 500 lagunek hartuko dute parte han

baztertu eta gainontzekoak gisakotzat hartzen ditugun ingurune garatuago batean, hain zuzen ere.

Mezua neska-mutilei helarazteko, eurengandik oso hurbil dagoen lengoia erabiliko duzue. Zeintzuk dira ekimenaren nondik norakoak?

Egitasmoa hiru zatik osatzen dute, eta antzerkia, rap eta graffitiak erabiliko ditugu erremintatatzat, betiere egitasmoaren ildo nagusiarekin zerikusia duten ekimenak egiten direla. Egitasmoaren lehenengo zatiari dagokionez, La Pez antzerki taldeak emanaldia eskainiko du Sondika-

ko Kultur Etxean, eta han Iñigo Iraultza arituko da aktore nagusi. Guztira bi saio eskainiko dira, bat DBHko bi kurtso. Saioretan Invert raperoak ere hartuko du parte. Musikari hori “Oilar-auskaren” Espainiako Txapelketaren finalista izan da. Bideo bat proiektatuko da. Bideoan Betagarri eta Zentric musika taldeen eta Fernando Llorente Athleticeko jokalariren iritziak batuko dira.

Aretoan landutakoa ikasgeletara eramango da.

Bai, hori da hain zuzen egitasmoaren bigarren zatia. Ezinbestekotzat jotzen dugu gazteekin aurretik landutako alderdien inguruko hausnarketa egitea. Horregatik, ikasgeletan saioak antolatuko dira, aurreko ekintzan aurkeztutako kontzeptuak finkatzeko.

Eta hirugarren zatiak hiri-artearen edukiko du ardatz nagusi.

Lehenengo eta bigarren ekintzak barneratu eta haien inguruan hausnartu ondoren, gazteek sormen artistikoaren bidez islatu ahaliko dituzte proiektuan bideratu diren, eta, euren ustez, esangu-

aren bidez

*lñigo Iraultza aktoreak,
Invert raperoak,
Betagarri musika
taldeak eta Fernando
Llorente futbolariak egin
dute bat egitasmoarekin*

ratsuenak izan diren ideiak. Horretarako, hiru tailer egingo dira: graffiti tailerra, Derioko gaztegunean; rap tailerra, Zamudioko gazte-estazioan; eta antzerki tailerra, Sondikako gaztegunean. Tailer bakoitzean 25 lagunentzako tokia dago; horietako 15ek institutuan bertan eman beharko dute izena, eta beste 10ek, gaztegunetan. Tailerretan edozein herritako lagunek hartu ahalko dute parte.

Noiz egingo dira ekintzak?

Proiektuaren lehenengo zatia, hau da, kultura emanaldia urtarrilaren 18an egingo dugu; eta hausnarketarako saioak, urtarrilaren 21etik 27ra bitartean. Ostean, tailerrei ekingo diegu: rap tailerra urtarrilaren 27an izango da; antzerki tailerra, otsailaren 4an; eta graffiti tailerra, otsailaren 11n.

Ilusio handiz prestatzen zabilzaten proiektua da, zelako itxaropenak dituzue?

Oso arrakastatsua izatea espero dugu, beste herrietan egin diren esperientziak hala erakutsi dutelako. Egitasmoan jorratuko direnak gazteei oso lotuta dauden ekimenak dira, eta eurentzat oso erakargarriak izango direla uste dugu. Txorierriko neska-mutilek proiektuarekin bat egitea espero dugu.

Dena dela, hau ez da izango gazteekin jorratuko duzuen ekintza bakarra.

Ez. Gazteak oso eragile garrantzitsuak dira guretzat, eta eurekin dugun harremana hemendik aurrera estuagoa izatea dugu helburu. Hori dela-eta, gazte arloan hainbat ekimen eta proiektu jarriko ditugu abian.

Oinarri pedagogikoak

“Nola egin aurre gatazkei” egitasmoak gazteek indarkeria baztertu eta elkarbizitzari lotutako oinarriak barneratzea du helburu. Besteak beste, ideia hauek helaraziko zaizkie ekimenen bitartez:

–Gatazka konpontzeko, indarkeria ez da beharrezkoa.

–Gatazkan ez dago errudunik, pertsonen arteko behar eta interes ezberdinak baizik.

–Gatazka batean, beste pertsonaren lekuan jartzeko gai izan behar da.

–Gatazka batean, norberaren eta bestearen emozioak kudeatzeko gai izan behar da.

–Adierazpen-komunikazioak bideratzen du, pertsonen arteko akordioak lortzea.

–Auto-estimua maila egokia izatea ezinbestekoa da, elkarbizitzari baiontasunez aurre egiteko.



Lezamako saltokiek bat egin dabe

Lezamako dendariak eta zerbitzu-sektorean dabilzanek indarrak batu eta alkarte barria osatu dabe: Lezama saretzen. Besteak beste, eguneroko erronkei alkarregaz batera aurre egitea eta herriko bizitza dinamizatea dabez helburu nagusizat. M^a Antonia Diez presidenteordeak eta M^a Carmen Dañobeitia batzordekideak hurreratu deuskue egitasmoa.

LEZAMA SARETZEN



t: Itxaso Marina / a: Gaizka Peñafiel

Lehenengo urratsak joan dan irailean hasi ziran emoten. Herriko saltokietako eta zerbitzu arloko lagunak bildu ziran eta antzerako kezka eta helburuak zituela atera eben ondorio. Eta horreei erantzuna emoteko alkartzea modurik eraginkorrena zala. Asko dira Lezama saretzen alkartea osatzera animau dituen errazoiak. "Alde bate-tik, bertoko merkataritza-bizitza nahiko geldirik dagoala uste dogu, eta berbizitu gura dogu. Bestetik, lotura sortu gura dogu herriko gremioen artean, ideak eta




arazoak guztion artean aztertzeke eta konponbideak modu bateratu baten topetako. Horrezaz ganera, mezu hau helduazo gura deutsegu herritarrei: zuek oso garrantzitsuak zarie guretzat, gure jardueretan aurrera egiten laguntzen deusku-

zuelako. Baina, aldi berean, gu be bagara garrantzitsuak zuentzat, herriari bizitza emoten deusagulako eta zerbitzu egokiak eskaintzen deusueguzalako".

Alkartean 30 negozio batu dira, eta beste askok interesa erakutsi dabe partaide izateko. Elikadura arlokoak dira, ostalari-tza arlokoak, osasun arlokoak, upeltegiak, mintegiak, ule-apaindegiak, landa-etxeak, paketeria arlokoak, eraikuntza arlokoak... Jarduera sorta zabala hartzen dabe. "Inportantea da hori azpimarratzea, herrian danetariko zerbitzuak doguzalako, jentea batzuetan ohartzen ez bada be". Euren esanetan, Lezamako komertzioa kalidade handikoa da, etxekoa eta hurbila. "Autoa hartzen badogu, hur doguz zentro komertzialak. Baina guk beste mota bateko zerbitzua emoten dogu. Arreta pertsonalatuagoa eskaintzen deusagu bezeroari, eta konponbidea emoten deutsegu eguneroko arazoei, baita produktuak etxera eroan be. Batez be edadekoen kasuan".

Bezeroarengandik hur

Etorkizunari begira, erronka handiak daukiez. "Gure jarduereta hobetu eta profesionalizatu behar dogu. Era berean,



doguzan baliabide guztiak erabilia lehia-
tu behar dogu zentro komertzial handia-
kaz. Lehia horretan kontsumitzaileen zein
instituzinoen laguntzea behar dogu; hau
da, hurreko komertzioa baloretea eta era-
biltea behar dogu". Ziur dagoz alkarteak
osatu izanak lagundu egingo deustela
erronkei heltzen. "Informazio zein pres-
takuntza handiagoa eskuratzeko aukerea
eukiko dogu, eta horrek guztiak onurak
baino ez deustez ekarriko gure negozioei.
Profesionalizazioa be ekarriko dau".
Alkartekideak lanean dabilz komertzio
guztiak publizitate-kanpaina eta mezu
bateratu baten biltzeko. "Logotipoa egin
da eta asmoa dogu webgune dinamiko
eta erabilgarria sortzeko. Alkartearen iru-
diari jagokozan gaietan herriko gazte bat,
Gaizka Peñafiel, jabilku laguntzen".

Gogoz eta ilusinoz ekin deustie bidea-
ri, eta Gabonetara zuzenduta hainbat eki-
men jarri dabez abian. Halan, egutegi-
txartela diseinatu dabe eta bezeroen arte-
an banatu dira. Txartel bakotxean zenbaki
bat dago. Abenduaren 30ean ONCEn
zozketan ataraten dan zenbakiagaz bat

*"Herrian danetariko
zerbitzuak doguz,
arreta pertsonalizatua
eskaintzen dabenak"*

datorren txartelaren jaubeak saski eder bi
jasoko ditu saritzat. Saskiok herriko hara-
tegian dagoz ikusgai, eta kalidade handi-
ko produktuez osatuta dagoz. Ganera,
diru-txartelak be badabez, herriko komer-
tziotan erabili ahal diranak. "Loteria be
atara dogu, eta erakusleho handia daben
establezimenduak animau doguz Merka-
taritza Kamarak antolatzen dauen lehia-
ketan parte hartzera". Datorren urteko
lehenengo hiruhilekorako hainbat eki-
men egitea aztertzen dabilz, alkartean
dagozan sektore ezbardinak inplikatu dai-
tezan. Alkarteak eratzeko beharrezkoak
diran izapide guztiak egin dabez Eusko
Jaurlaritzan, eta erantzuna laster izatea
itxaroten dabe. Udalean be aurkeztu
dabez proiektua eta zergaitiak.





SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

SARRERAK AURRETIK EROSTOKO:
TXARTELEDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago

ANTZERKIA



DOS HOMBRES SIN PUNTO COM... NI NA
Compañía de teatro si
(gazte eta helduentzako komedia
8 urte kartelean)
Abenduak 28, 22:00
Prezioa: 10 €

LOS ANIMALES DE DON BALTASAR
Compañía el teloncillo
(3tik 9 urtera arte)
Abenduak 22, 17:00
-12 urte: 5 €
+12 urte: 8 €





**ARTHUR CRISTMAS:
OPERACION REGALO**
AG (3D)
Urtarrilak 4, 17:30
Urtarrilak 8, 17:00



NOCHE FIN DE AÑO
(2D)
Urtarrilak 7, 18:00
Urtarrilak 7, 20:30
Urtarrilak 8, 19:30



EL REY LEÓN
(AG) 3D
Urtarrilak 13, 19:00
Urtarrilak 15, 17:00



**SHERLOCK HOLMES:
JUEGO DE SOMBRAS**
ESTREINALDIA (2D)
Urtarrilak 14, 18:00
Urtarrilak 14, 20:30
Urtarrilak 15, 19:30



LA DAMA DE HIERRO
(2D)
Urtarrilak 20, 20:00
Urtarrilak 21, 20:30
Urtarrilak 22, 19:30

**COPITO DE NIEVE,
EL GORILA BLANCO**
(3D)
Urtarrilak 21, 18:00

JACK Y SU GEMELA
ESTREINALDIA (2D)
Urtarrilak 27, 20:00
Urtarrilak 29, 17:00
Urtarrilak 29, 19:30

ZINEA





2D: 4 € 3D: 6 €

*oharri: produktoraren beharrezko zanes araberako programazioak aldaketak jasun ditzazko

Jaiak eta zezenketea



Argazkian Elizaldeko ingurua agertzen da, jai-ospakizunak han antolatzen ei ziran. Argazkia XX. mendearen erdialdean egindako margoa da.

t/a: Sabin Arana

Gatxa da kistautasun aurreko ohitura ludikoak idatzita aurkitzea, eta arkeologiak erakutsi deuskuna be ez da beti oso zehatza izan. Baina Larrabetzuri jagokonez, behintzat, badakigu Elizaldeko fabrikaren kontuen liburuan eta Uriko Kontsejuaren liburuan azaltzen diran XVII. mendeko datuak zehatzak dirala.

Mende horretan, eleiza eta haren ospakizunak ziran nagusi jaietan. Elizalden, esate baterako, Medel eta Zeledon martirien eguna ospatzen zan, eta Eguen Santurako gorde-altara berezia eregiten zan, "Monumentua" eritxana, bertan altarako jauna jarteko. Altara honen edertasunak sortzen ei eban jai giroa. Gainera, ha urtero gero eta ederrago egin behar



Bilboko San Anton enparantzan ipinten zan zezen-plazea azaltzen jaku irudi honetan. Kasu honetan, heziak burdinazkoak badira be, pentsa daikegu Larrabetzun eta orokorrean XVII. mendean zurezko hesiak erabilten zirala. Argazkia XVIII. Mendeko margoa da, eta han toreatzaile profesionala agertzen da.

zan altarea zan. Urian, barriz, Andra Mari eguna, Gorpuzti-eguna eta Eguen Santua ospatzen ziran, ekimen honek tanbolin-teruek be alaitzen ebezala. Horrezaz gainera, gudarostea antolatu behar zanean, alardea egiten zan. Hau da, herritarrei deia egin eta armadunen zerrenda egin ostean, kapitai eta abarrekoak izendatzen ziran.

Beste alde batetik, bai Elizaldeko Emeterietan, bai Uriko Andramarietan zezenketea antolatzen zan. Horretarako, eta kontuen liburuetan jasotako ordainketan azaltzen danaren arabera, zezen bilaketa egiten zan. Era berean, zurezko hezi mobikorrak sortzen ebazan garraio- eta muntaia-gastuak be jasoten ziran liburuetan: Emeterietan, azpiegiturea Elizaldera eroateak ekarzan gastuak, zein Andramarietan, ha Urira bueltatzeak ekarzanak. Ekimenari "zezena txuliatu" edo "zezenka" esaten jakon. Sokamuturreagaz zerikusia ebala uste dogu, mende horretan ez zalako zezena hiltzen. Baina egun baten lagunak beroegi-edo ibili ei ziran zezenagaz eta animalia hil eben. Hareek aparteko ordainketea egin behar izan eben, eta horregaitik dakigu garai hatan solasaren helburua ez zala zezena hiltea. Era berean, gertaerak argi adierazoten deusku bizilagunen indarkeria, gaur egun eztabaida bizia sortzen dauan gaia dana.

Larrabetzun ez zan XVII. mendeko toreatzaile profesionalen inguruko datu-rik batu; horretarako, XVIII. mendera jo beharko genduke. Toretzaileak Uriki edo Elizaldeko fabrikak dirua ebenean ekarriko ebezan. Mende horretan be zezena ez ebela hiltzen uste dogu. Antza danez, ekintza honek Zubitalde deritxon gunean izaten ziran, garai hatan oraindino be harrizko zubi bakarra ebana. Zezen-plazea Zubibarri moduan eza-gutzen dogun inguruan alztaten zan. Elizalde auzoan, barriz, bolalekuaren inguruan ipinten zan.



**LIBRERIA
SONDIKA
LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

**TXORIERRI
Inmobiliaria**

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

karregandik gerta

ABOLKULARETZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - EKKUALDATZEAK
SALEROSKETAK
SEGI BOKI BILBAOEN AGENTZIA

**EGUNEKO
MENUAK**

**ESPEZIALITATEA,
TORTILLAK**

ELI

Lehendakari Leizaola Plaza, 6
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 04 68

Centro Dental
Txorierri

Rocio Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Kepa Herguedas Manso
Col. nº 48000757

Maria Conde Bilbao
Col. nº 48000983

Mixina 6, bajo - 48150 - Sondika (getxokiaren aurrean)
T.: 944 711 839 - Larrialdiak: 870 985 885 - www.cdtxorierri.com

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagoiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

ATARRABI

Erremerteri, 14 - 48150 Sondika
Tel. 944 531 928

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
LURRANGILEEN ETXEA

Nerea Pedrosa Cols. 517
COOP. SANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

BAR RAFI

ESPEZIALITATEA: PINTXOAK

Rafael Garcia Tejero

Oiz Kalea, 5 T.: 94 406 08 08
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Mobilak: 607 406 813

**BASALBEITIKO
TXAKOLINA**

Bizkaiko Txakolina
Denominazio Jaurerria

Bizkaiko Txakolina

Geltokizua Auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

**yedra
floristas**

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

pro audio

SOINUEN ADITUAK

- hi-fi
- nabigazioa
- telefonioa
- segurtasuna
- irakurketa
- pertsonalizatzea

Txorierri et. 15
48150 Sondika bizkaia
944 533 375

www.proaudiosondika.com
jose@proaudiosondika.com

Elkarrekin gozatu genuen
Eskerrik asko, bazkideak!

ban
BASERRIANTZOKIA



634 401 580

www.baserriantzokia.com

alegarreta@baserriantzokia.com



2012an bete egingo
ditugu geure ametsak

Ez da bardin txarriboda eta boda txarria


t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

Txarri berba bat da, *boda* bigarren hitz bat, baina biak alkartuta hirugarrena sortzen da, hirugarren kontzeptua, TXARRIBODA. Bestalde, txarriboda hitzak ez dauka zerikusirik ezkontzarekin, bai txarriarekin ostera. Txarriboda, izatez, jatordua da.

Euskara batuan be txarriboda idazten da, ez txerriboda. Tradizino honetan txarriak irabazi egin deutso txerriari.

Euskal gramatikan, txarria berbeagaz hitz elkarketa nahiz eratorpen nahiz sin-tagma oso indartsuak sortzen dira. Euskaldunarentzat ez da bardin txarriboda eta boda txarria; ez da bardin txarrien boda eta bodan **txarrie**; ez da bardin txarri **barrie** eta **barrien txarrie**; ez da bardin txarri burua eta buru txarria; ez da bardin txarri buztana eta buztan txarria; ez da bardin txarri belarria eta belarri txarria; ez da bardin txarrikeria eta quería charri; ez da bardin txarri-gortea eta gorta txarria; ez da bardin txarri txorizoa eta txorizo txarria; ez da bardin txarrien aska eta askan txarria.

Hitz elkartuak egiteko, izena + izena da oparoena. Holako berbak erabiltzerakoan gazteleraz cerdo atzetik erabiltzen dabe; euskaraz, barriz, aurretik: chuleta



(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa

de cerdo guk txarri txuleta, txarria aurretik dala.

Arrietako herrira, ostera, atzetik ekar-tzen zituan txarriak txarrizainak, txarrien artzainak. *Txarrizaina etxerik etxe, lehen kamioirik egon ez zanean. Oinez txarri ban-dea hartuta; 50 txarrikuma edo hartuta; euren brus handiagaz, boltsiloan arto ga-*

rauna eta hareek noizik behinean bota. Beraren -txarrizainaren- ondorik banda-txua. Galdu bat be ez. Galdu txarriak? Zoaz ardi-jagolearengana ea zenbat galtzen dituan! Urtarilean edo zezeilean. Gehienak Araba partetik etorten ziran.

Ai txarriak! Jakin bazenduen txarribodarako zatoziela, egingo zenduen hanka!

Bai Euskarari urrats biziak

bai
zurtagiarenoskorta
bai

GAMINIZ JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio · Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

Etxeko sukaldaritza

Ziza-tartea

*Maite Lekerika, sukaldaria***Osagaiak (sei lagunentzat):**

- "Brisa" orea
- 2 kipula (juliana eran txikituak)
- 2 porru (juliana eran txikituak)
- 2 berakatz-atal (juliana eran txikituak)
- 400 g ziza edo onddo
- 200 ml esnegain
- 4 arrautza
- Orioa, gatza, gurina eta urina

Prestatzeko area:

Molde bat gurinaz igurtzi eta urinez-tatu egingo dogu. Orea bertan zabalduko dogu eta sardexka bategaz zulutuko do-

gu. Laban 10-12 minutu inguruan izango dogu 180 gradutan. Handik atara eta gorde egingo dogu. Kipulak gurin apur bategaz fritituko doguz. Zartaginari edo erabilten dogun ontziri estalgia ipini eta su ezatian itxiko dogu kipula bigundu arte. Porruak eta berakatzak orio eta gatz apur bategaz fritituko doguz, eta kipulakaz egindako prozesu bera errepikauko dogu. Zizak txikitu eta orio eta gatz apur bategaz fritituko doguz. Aurreko barazkiakaz egin dogun bezala, zartaginari estalgia ipini eta su ezatian eukiko dogu bigundu arte. Osagaiak ordena honetan ipiniko doguz orea gainean: kipula, porruak eta zizak. Esnegaina, arrautzak eta gatz apur bat ondo nahasi eta gainetik botako deusagu. Laba beroan 30-40 minutuan eukiko dogu. Bero-bero aterako dogu mahaira.

**Osagaiak (sei lagunentzat):**

- 1,5 kiloko lebatz-buztana (hazurra kendu eta liburu baten moduan zabaldu)
- Txangurro eder bat (alde zurratik egosi, mamina kendu eta gorde)
- Kipula txiki bat (txikitua)
- Porru eder bat (txikitua)
- Zanori bat (txikitua)
- Tomate txiki bat (txikitua)
- 200 g ganba (azala kenduta)
- Orioa, gatza, koñak-zorrotada bat, ogi birrindua, perejila, limoi baten zukua, 3 berakatz-atal

Prestateko area:

Eltze baten orio-zorrotada bat bota eta barazkiak ordena honetan




KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel: 944 34 29 56

Carniceria
Charcuteria
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskerrik asko
etortzeagaitik



OSTEOPATIA-ZENTROA
ESKU-TERAPIAK

Lasai

Luis M^a Asensio
Osteopata

Larrabarri, 1 Iorja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelakoa: 655 74 24 89
osteopatialasai@gmail.com

Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA

Unisex ileapaindegia
Estetika
Ordutegi jarraitua
Laser-depilazioa

Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32



LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, orokortzen
Auzoaren komunitateak
Mantutzeko garbi-ikusiak
Bulegnak eta lokalak
Ostia emateko garbitzek
Bastoreak
Zabor bilera

Besaide Plaza, 1 - B^a Aldekoa - Tel: 94 406 49 92
48160 DERIO (Bizkaia) 656 712 443
loregarbi@euskalnet.net Fax: 94 406 49 93



Mamen

lurrindegia **MAMEN** mertzeria

Golko kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25





Txangurro eta ganbaz betetako lebatza laban

ipiniko doguz: zanoria, kipulea, porrua eta tomatea. Barazkiak su ezitan izango doguz eta eginda dagozanean, ganbaz gehituko doguz. Koñak-zorrotadea bota, su bizian ipini eta flameatu egingo dogu (sua emon eta erre). Sua amaten danean, txangurroaren mamina gehituko deutzagu. Lebatza zabalik ipiniko dogu eta alde baten betegarria jarriko dogu. Alde biak alkartu eta orio apur bategaz igurtziko dogu arraina. Gatza botako dogu eta orioak hartzen dauen beste ogi birrindua be botako

dogu. Arraina aluminio-paperaz tapau eta labara 200 gradutan sartuko dogu. Han ordu erdi inguruan eukiko dogu. Hamar edo hamabost minutu pasau ostean, aluminio-papera kenduko dogu, arraina agerian itxiz. Ogi birrindua txigortu egingo da. Arraina labatik atara eta perejil apur bategaz apainduko dogu. Berakatzak txikitu eta frititu egingo doguz. Limoiaren zukuagaz nahasi eta gainetik botako deutzagu arrainari. Gustukoa bada, panadera patatakaz lagundu daiteke.

Turroi-flana

Osagaiak (sei lagunentzat):

- 4 arrautza
- 300 ml esne
- 300 ml esnegain
- 200 g turroi bigun
- 2 koilarakada azukre (azukre baltza bada, hobeto)
- Karamelu likidoa edo azukre karamelatu

Prestateko errea:

Moldea karamelatu egingo dogu. Beste osagaiak nahasi eta ondo irabiauiko doguz. Nahasketea moldera bota eta maria bainuan egingo dogu laban, 180 gradutan. Ondo eginda dagoanean labatik atara eta hotzitzen itxiko dogu. Flana moldetik atara eta jateko prest daukagu. Turroizko izozkiagaz edo esnegain harrotuagaz lagunduta atara geinke mahaira.



 **Ercoreca**
supermerkatuak
Elikaduran adituak

 **EGUNEKO MENUA**
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria **9€**

Bestorene 5, Behiea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

Jatetxea **SAN ISIDRO**

HUNKO OHELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXKO GOZOGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98 Mungaiako etorbidea, 25
Fax 94 454 14 18 48160 DERIO

 **POXPOLIN**
OPARIAK ETA ARROPA

94 656 72 25 ARALAR, 4
DERIO

Jai zoriontsuak!

Liliak Loradenda

Erdiko kalea, 2
Telefona: 94 454 12 23

48016 DERIO
Mobila: 657 79 75 93

Martinez Zaldueño Doktoa

Mediku estomatologoa
EHUko Odontologia irakaslea
Pinky EEUJ Protetik

Clínica Sondika Dental

*1983tik hona zaintzen dugu zure bizi-irribarra

Protesiak inplanteen gainean
Ortodontziak
Periortodontziak

Goiri, 2
48150 Sondika Bizkaiak
Tel.: 94 453 34 40
e-mail: ramonzaldueño2009@hotmail.com
www.euskalnet.net/sondikadental

ALZARA

Sondikako euskara elkarteak

ORIONAK

URTE BERRI ON!

Jaietan be,
euskara jalgi hadi
Zamudioko herrira

LAGATZU

ZAMUDIOKO
EUSKERA
ELKARTEA
www.lagatzu.org

**zamudion
euskeraz?
hoba ez!**

ed

electricidad derio elektrizitatea

Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea

Proiektuak eta
material elektrikoaren salmenta

Aizkorri Kalea, 1 - Telf / Fax: 94 454 31 46 - 48160 DERIO (Bizkaiak)

Gaufxori

Erremerteri kalea, 18
48150 SONDIKA

ANULACIONES SEPTICAS

MUNCIA

Estalderia
Garbilerak eta mantentze-lanak
Tutusak
Mobi septikoen

24 orduko
orduko
erantzua

Pisua, 2C, 4. solairu | 48170 Zamudio BIZKAIKA
T: 94 446 02 09 | Fax: 94 44675 99
muncia@saneamientoamungia.com | www.saneamientoamungia.com

Construcciones-Reformas

IÑIGO BARCENA

Igeltserotza orokorra

Arbolantxa kalea, 8 - 1.azk,
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Mobila: 695 70 33 12

TOLDOS TXORIERRI

TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko Ionak

Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan

Gorbeia, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaiak)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

Gestión Zamudio

Aholkularitza Fiskala

Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Eszenatokietako aztarnak hasten direnean, Amaia Iturbide.
- Errauts, Eneko Aizpurua.
- Limoi bat imitziarik egin gabe jaten baduzu, Sergi Pamies.
- Izen bereziak, Juan Modesto Arrieta.
- Argiaren erreinua, Joseba Lozano.

HAUR ETA GAZTEENTZAT

- Scott barberenaren bizitzako lehen pausoak, José Luis Zumeta Etxebarria eta Pako Aristi.
- Serafin eta basoko animaliak, Batzuk.
- Indianoa, Gregorio Muro eta Francisco Fructuoso.
- Zabaleko txorimaloa, Juan Luis Zabala eta Maite Gurrutxaga.

MUSIKA

- Lagunartean, Gaizka Peñafiel.
- Hiri hartan izan zen, Mikel Markez.
- Leihoak, Lain.

Sudokua

3	6				7	2		
	2	8		5				
				4	2		6	7
		9		8	5			
					6	7	5	
					4	3		
								8
8							4	2
		2				6	7	

3	6	7	9	8	6	8	7	3
8	7	3	5	6	1	9	4	2
9	4	6	2	7	3	5	1	8
6	5	7	1	2	4	3	8	9
2	8	1	9	3	6	7	5	4
4	3	9	7	8	5	1	2	6
1	9	5	3	4	2	8	6	7
7	2	8	6	5	9	4	3	1
3	6	4	8	1	7	2	9	5

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbollean jokatu, etorri zaitzez Trippyra, Deriora

Behoko Kalea Baxo
DERIO

MODA INFANTIL
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8
Telefonoa: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26

48160 DERIO
Bizkaia

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu Berriak
Logopedia
Podologia
Krimasajek

clinica dental ZAINDUZ hortz klinika

Txarriari ibarribidea, 9 - Larra | Arteaga etakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

CONSTRUCCIONES LANDETANE, S.L.



**ANDER ETXEBARRIA
MIKEL ETXEBARRIA**

Tfnoa, eta faxa: 94 455 65 82
607 54 77 67
607 23 99 42

Garaioltza auzoa, 142
48196 LEZAMA
Bizkaia

ZORRIZKETAN
LEZAMAKO EUSKERA ELKARTEA

**Gabon zoriontsuak
lezamar eta
txorierritar guztioi**



BATAK BESTEAGAZ LEZAMARROK EUSKARAZ
Tel.: 94 455 60 76



OXANGOITI
Kutur Elkarte **TABERNA**

Etxean gura
doguz Gabonetan
Aurrera Oxangoiti!

Aretxalde, 54 - tel.: 94 455 50 37
LEZAMA

**Gaztedi
berria tavern**

- Menuak, astegun zein asteburuetan •
- Otartekoak eta **anoak** • 40 lagunentzako **jantokia**
- Hainbat **garagardo** eta **ron** mota •
- Musika ezberdina, **giro** ederra
- **Telebista** erraldoia •
- **Jokoak**: dardoak, futbolina, billar • **WiFi** gunea
- **Terraza** eta aparkalekua •
- **Rabak**, igande eta jai egunetan •

Gabonzaharreen, zabalik



• Aretxalde auzoa, 141
• 48196 Lezama
• Tel.: 94 455 61 44

Txorierrri Et., 30
48150 SONDIKA

94 453 35 05
667 78 63 31



**ORAIN
GAUTXORI TABERNA**
ERREMENTERI KALEAN
GIRORIK ONENA
LAGUN ARTEAN

**PEÑA ATHLETIC
BETI HARROBIA**

HORTZ KLINIKA

GANDIAGA

94 608 62 30 - 31

klinikagandiaga@euskalnet.net

10:00etatik 20:00etara arte
eta larunbatetan (aurretiko txanda)

- Odontologia orokorra
- Implanteak
- Ortodontzia
- PADI

Txantxangorri, 2 - lokala 1. ezk.
(surrera Lehendakari Agirre Plazatik)
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

HARRI-BILBO

HARGINTZA OROKORRA

LEHIO-ERTZEKO HARRIAK - KANTO HARRIAK - BARLASAIK - MAILAK
ARKUAK - TXIMINIAK - HARRI-HORMITUAK - XAFLA-LANAK

HARRORIA: DUKANDON
E-mail: recupesaharribilbo@euskalnet.net

LANTEGIA:
Kurtzea Industrialdea, z/g • 48196 LEZAMA
94 452 10 71

ERAKUSTOKIA:
Itxaropena, 2 • 48100 MUNGIA
94 674 33 40

leke,s jatetxea

Tel. 94 454 29 86
restaurantelekes@gmail.com
Santoniemi, 2, Zamudio, 48170

E GUNEKO MENJU CATERING WIFI GUNEA
BAZKARI ETA AFARI BEREZIAK
(ALDEZ AURRETIK ESKATUAI)

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pakearen Plaza, 1 • 1º A
DERIO
Telefonoa: 944 543 705

GOXO-GOXO LOHTIZON

Aurretaldeaz zabalik
Ogile egunero
Postalek aukeraguz

Garaioltza, 77c
48196 Lezama
94 455 42 72
goxogoxolohitzun@hotmail.com

LAPIKO/s.l.
Enkalkinatu materialak - Dekorazio



LK

Bº Garaioltza, 67 - 48196 LEZAMA (Bizkaia)
Tlf. 94 455 63 98 - 94 455 64 01 - Fax: 94 455 63 98



Biraka laguntzen
diogu munduari

ITP konpainia globala da, produktuaren bizitza-ziklo osoan zehar duen teknologia eta ingurumenarekiko begiruneagatik aerogintza eta industria motoreen merkatuan aitzindaria. ITPn kudeaketaren bikaintasunaren aldeko apostu sendoa egin dugu bai eta gure bezeroei begirako etengabeko lotura garatu ere, konpainiari eta interes-talde orori balioa emanaz.



talentuaren indarra

www.itp.es



Nabarmena, teknologiarengatik

Nabarmena, prezioarengatik



Zerbitzu profesionala, salmentaren aurretik, bitartean eta ostean

GURE INSTALAZIOAK BISITATU ETA EZAGUTU UDAZKENEKO KANPAINAREN ESKAINTZAK ETA NOBEDADEAK!

LOIUKO AIREPORTUAREN ONDOAN GAUDE

*Irudiak ez du zertan eskaintzarekin bat etorri

agrojardín
Astikene

**Astikene industrialdea,
Berezi 23C**

48160-Derio BIZKAIA

Tel.: 944 540 652 / Fax: 944 540 653

astikene@agrojardinastikene.com

www.agrojardinastikene.com